



ONDARROA
BASERRI GIROAN

AUGUSTIN ZBIKARAI
JUAN FERNANDEZ EGIGUREN

ONDARROA
BASERRI GIROAN

Bizkai'ko Foru Aldundiaren laguntzaz.



© *Augustin Zubikarai*
Juan Fernandez Egiguren

Legerako Gordetza *BI - 873 - 85*
Depósito Legal

Argitaldaria: GAUBEKA Irarkola - Gernika

Azala: Alberto Rementeria

Argazkiak: J. Fernández Egiguren

Augustin Zubikarai
Juan Fernandez Egiguren

ONDARROA
BASERRI GIROAN

1985

Irakurleei

Ondarrutarrentzat liburu bakana dakargu gaur argitara.

Oituta gagoz gure gauzak itxasoari buruz idatzi eta irakurtera.

Alaz eta Ondarroa'k, itxas erri izanarren, ba dauka bere mendi eta baserri artea.

Oraingotan mendi zear ibili gara. Eta paper zarretan baserri gaiak aztertu ten.

Uste dogu gure erriak atsegin izango daukela bere irakurgarri eta erakusleen artean, itxas aurrean daukaguzan gure mendi eta soloetan, gure baso eta ortuetan, gure sagasti, maasti eta gaztañadietan zelako arduraz ibili, zelako neurriak artu eta euretako emaitzekaz zelan baliatu giñan jakitea.

Gure kaleak ezagutzen atsegin izaten dogun lez, gure baserritarrak ikustea be pozgarri izango dalakoan, etxerik etxe ibili gara eurak ikusi, argazkiak atara eta euretako goraberak jakin eta batzen.

Esan giñei baserri guztietan borondaterik onena ezagutu dogula. Origaitik gure eskerrik beroenak guztiei.

Ondarroa'n, 1985'ko Udabarrian



ARRANTZALE TA BASERRITARRAK

Arrantzale erri lez sortu eban Ondarroa, Bizkai'ko Andre zan Haro -
ko Marina'k, 1327'ko Irailla'ren 28'an, lendik arrantzaleak bizi ziran izen
orretako tokian.

Mendiak emon eutsazan erri barriari, bere inguruan, eta bai base-
rriak be.

Inguru andia mendietan. Ez ainbestekoa baserrietan.

Mendiak Berriatu eta Ondarroa'ren jaubetasuneko, bitsuen alkarta-
suneko erabilgarri gelditzen ziralako asko.

Baserriak, etxeak, lur-lauan gelditzen ziran geienak. Au da, Bizkai lurren legean. Eta alaxe gelditu nai eben.

Mendiak ez euken berbarik. Etxeak bai. Eta etxeetatik sortu ziran eztabaidak eta asarreak.

Baserritarrak, bizidunak, lur-lauen eskubidetan jarraitu nai eben. Au da, garbi esanda, berriatuar. Lege, izate eta oituretan.

Urteen buruan, eztabaida ta konponketaz, egin zan alako geldiratze bat.

Orrek jarraitzen dau.

Gaur, eta len, Ondarroa'k ba daukaz bere baserriak.

Batzuk, Ondarroa'n bizi geiago dauke, Berriatua'n baiño. Baiña berriatuar jarraitu nai dabe.

Beste batzuk, bizi bikoitza dauke. Erri legea alde batera eta Eleizaren lotuerak bestera. Ezin ukatu Eleizak lotsazko tengada eta lotuera zaindu eta gorde eragiten dauanik.

Origaitik, Ondarroa eta Berriatu'k daukezan oitura eta ekanduetan. baserri batzuk bietara jokatzera beartuta aurkitzen dira.

Gure lan onetan, inguruko baserri bakoitzaren lotuera zeaztuko dogu.





4

Inguruko baserriei ikututen dautsegu. Ondarroa'ren inguruan diranei, eta erri onegaz era bateko edo besteko lotuera daukeneri. Jaubetasun eskubiderik iñori kendu edo ukatu barik.

Origaitik, baserri batzuk emen aztertu eta izentatzeak, ez dau esan nai euren nortasunik ezagutzen ez dogunik. Era batera edo bestera etxe-ko edo auzoko doguzalako, egunero ikusten doguzalako, edo gure ibil-aldietan eurretatik zear ibiltzen garealako, edo euren bezeroak garealako, agertzen doguz.

Azken aldabanatze arte, au da, Berriatua eta Ondarroa 1984'n aldebanatu arte, Ondarroa'renak ziran Mereludiko baserri batzuk, Milloi gaiñekoak. Banaketa orretan Berriatua'gaz geratu diran ezker, ez dogu euren aipamenik egingo.

Besteak, la betikoak, era batera edo bestera gure inguruan jarraitzen dabe eta euren ikuspegi ariñak egingo doguz.

Besterik ezean arrantzaleok be baserriarren ezaupidea eukitea jatorra eta bidezkoa dala adierazi nai dogu eta batez be, alkar arteko artu-emona eta maitasuna sendotu nai doguzala.



«Gorri»

13 urte.

zenbat diru
indar truke?
(Artadialde)

AUZOAK

Iru auzo nausietan banatu geinke Ondarroa: Asterrika, Errenderi eta Gorozika.



ASTERRIKA

Itxas aldeko mendietan dago auzo au. Erri legez Goimendi auzoa dauka Ondarroa'k inguru onetako bidean, baiña Asterrika bertan dagon San Lorentzo'n kofradian batzen dira Goimenditarrak.

Beraz gure lanerako Goimendi Asterrika'gaz batera erabiliko dogu.

Asterrika berbera, geiena, lurrez Berriatua da, baiña eleiz eta erakundez Ondarroa'ko Andra Mari Parrokiari dagokio. Orra orko baserrien lotuera bikoitza.

Auzoan dagon ermita San Lorentzo'ren izenekua da. Antxiñako pa izen ori Lorente lez agertzan da.

Bertako jala: Dagonila (Abustu) ko 10'ean.

Igande eta jaietan meza egoten da berta n eguerdi aurrean.

Urte batzuk arte, eskoletxea be egon zan. Beraz, era orretan, aste erri buruagazko lotuera pixkat galdu egiten eben.



Asterrika'ko esaerak dira:

San Lorentzo'k esku baten sua,
Asterrika'n otz ez dana berua.

Edo ta beste antzerako au:

San Lorentzo'k esku baten su bizia,
eta bestean prest illintia.

Asterrika'rako bideak:

Kotxean zuzen joateko. Lekeitio'ko bide nausitik Anakabe'ra joan
eta andik Asterrika'rako bide berezian sartu ta jarraitu.

Irabaltza'tik lkaita'ra edo Zerzermendira be kotxean joan leiteke.

Burdi bideak dagoz baita Galtzuaran'dik goiko bidera urtenda, edo
ta Bidenausitik Konde Etxebarri'ra, edo ta Errenderi aldetik gora doazan
baso bidetatik zear,

Lengo bide jatorra, eleiz bidea edo anda bidea, Antigua'tik Arrian-
dieta'n gora Arteta gaiñera eldu eta andik bertaraiño daroan bidea izaten
zan.



Asterrika, Eleizako sarrerak.

ERRENDERI

Artibai ibaiaren egalean dago.

Itxasoko urak be elduten dira bertara mare gorakoetan. Inoiz, mare bizietan, itxas urak ibaiko ujolagaz bat eginda, kezkek sortu be bai.

Kontu egin itxas ontziak egiteko lantegi edo astillerua la gure den arte egon zala bertan.

Eta itxasotik sartzen ziran gaiki asko, txalopetan bertaraiño eroaten zirala eta an atara, saldu eta gorde.



Jakiña da beintzat 1809 urtean ingelesak sartu eta bertan egozan txalupa biko 20/22 barrika aguardiente ostu zituela.

Libro V de Decretos dalakoan salatzen da Udaleko iru-lau batzarretan gertaera ori.

Amallo aldean ataraten zan burdinki eta meazkia be bertan sartzen zan itxas-ontzietan erbestera bialtzeko.

Ondarroa sortu zanetik edo erri legea emon eutsenetik. Ondarroa da. Auzoetatik urrena eta erriari lotuena.

Ez dauka ermitarik be.

Denpora zarretan Santa Ana *izeneko* ermita euki eban, Berriatua'k bertan egiten daben muga. Gaur ermita ori Santana izeneko baserri edo etxe-bizitza biurtuta dago.

Emengoak bertatik laster dauke Gardotza'ko Amaren ermita eta ango eguna ospatuten dakie, nai ta ermita ori, lur eta eleiz erakundez, Berriatu'ko erri eta parrokiari lotua egon.

Gardotza'ko ermita ori ondarrutar arrantzaleak eta batez be euren andrak oneraspen andiko eben, eta iru zapatuetako ikustaldiak egiten ziztuen bertara.





Andra Mari Gardotzako

Gardotza'ko Ama, bestalde, irudi lez, Pizkunde aroko irudirik ikusgarriena dala esaten ekian Aita Lizarralde'k. (Andra Mari-Vizcaya, 212 orrialdean).

Auzoa Artibai ibaiak erdibitzen ba dau be, ba dauka ibai ganeko zubia alde batetik besteratzeko.

Ain zuzen be ibaiaren beste aldeak sortu eutsazan asarre eta burukomiñak asieretan.

1479 urteko Apirilla'ren 24'an berriatuarrak eta ondarrutarrak Ondarroa'ko parrokiaren inguruan, bertako «korretak» deitzen diranean egin eben batzar bat, euren arteko asarre-bideak arintzeko. Asarre gairik nagusienak, erri bien artean eta denpora areitan, Errenderi auzo onen mugak izaten ziran. Bai eta Zaldu. Iramategi. Alliri eta Arriaga baserrien egoera be. Bardin Gorozika auzoan Allenda baserriaren mugatzea be.

ERRENDERI



GOROZIKA



Itxas ertzean, baiña Gipuzkoa'ren mugatik asten da auzo orretarako bidea.

Lenengo baserriak Santa Kutz mendiaren inguruko dira, ala Akilla, Burgo, Baraikuak. Oneik be eleizaz Ondarroa'ko parrokiaren menpeta-suneko, baiña erri legez Berriatua. Geroago Gorozika berbertan sartzen da.

Santa Kutz ingurukoak Gorozika'n sartuko doguz.

Gorozika, auzo berbera, zati andi baten, erri eta eleizaz Ondarroa da. Asierako lotuera dauka Ondarroa'gaz. Ondarroa'ri erri nortasuna emon eutsen denporetatik.

Sortuerako agirian irakurten da: *«Tengo por bién e mando que hayan por vezinos de la villa mis labradores de Amalio, é demás dóles a Gorocica, con sus términos é con sus bienes, con sus entradas é sus salidas é demás dóles lo que han don Pedro Gonzales de Arancibia...»*

Ori dala ta, Asterrika'k euki ez daben erri begirapena eta ardura euki izan dau.

Antxiñetatik joaten zan bertara erri ordezkarien bat jaietan. Alaz eta 1820'ko Bagilla'ren 20'an au erabagi zan:


«...en atención a que el día de San Juan Baupta que suele ser el veinte y quatro de Junio. se celebra en el Barrio de Gorozica, jurisdicción privativa de esta villa Romería en toda fama, acudan desde este año, así como antes acudía solo el Alcalde, éste con su Secretario y ministro en todas los demás siguientes, y la manutención de los tres sea

por cuenta de la Tabernera por motivo de que se vende aquel día en dicho Barrio sin Sisa el vino.» (Udal Artxiboa. Libro 6 de Decretos 1812 a 1826).

Urteetara gauzak garraztu egin ziran.

1830'ko Maiatza'ren 2'ko Udal Batzarrean barriro eztabaidatu zan Gorozikatarren eskubidearen zuzentasuna,

«... en este estado se leió un dictamen obtenido por el Sr. Alcalde a nombre de este villa y don Santiago de Abaroa por parte de los vecinos y moradores del B.º de Gorocica del Lizdo don Jose Genaro Gutierrez de Cabiedes, de dos de Marzo último por el cual se les ampara en la posesión inmemorial que tienen dichos vecinos y moradores de la Barriada de Gorocica jurisdicción de esta villa para que puedan vever sin sisa municipal y dro el vino que se consume en la festividad o romería de san Juan Baupta veinte u cuatro de Junio por las razones que expresa por menor el citado dictamen, así como también que la villa en juicio podrá salir victoriosa por los privilegios que goza. pero mientras no sean vencidos en juicio podrán continuar veviendo aquel sin derecho ni sisa municipal, en cuia vista habiendo discutido el punto con delicadeza por el Ayuntamiento y vecinos de la dcha Barriada de Gorocica, acordaron los insinuados Regidores, Diputado del Comun, Sindico Pror gral de la misma, Arriola, Aranzamendi, Icaran, Azpiri, Badiola, Sustaeta, Madariaga, Mugartegi, Aristi, Ibaibarriaga, que no se permita en adelante vender ni consumir en la citada barriada de Gorocica, en la festividad de san Juan



Baupta vino sin derecho ni sisa municipal y a fin de aclarar y decidir el punto de si han de gozar de este privilegio y continuar en la posesión que tienen, dar comisión y poder al Síndico.

En este estado, a propuesta de algunos vecinos concejantes se suspendió el poder y de común acuerdo determinaron que por vía de reconocimiento de la jurisdicción que tienen esta villa en aquella Barriada, paguen sus vecinos y moradores desde este año en adelante mitad de los derechos de sisa municipal y el Señorío y fuentes siempre por entero, dándole al Mayordomo de dicha Hermandad facultad para nombrar el Tabernero que ha de vender dicho día, sujetando al afuera de los Regidores y vendaje que designen estos, debiendo advertir que el derecho de fuentes se ha de entender hasta que se pague su importe, y lo mismo se sujetarán a otro cualquiera nuevo impuesto que se aumente en todo tiempo bien por obras que intente hacer esta villa o por otras utilidades, pero la sisa municipal siempre la mitad». (Libro 7 de Decretos 1826-1828. Udal Artxiboa).



1839'ko Azilla'ren 3'an, erriko sisa eta zergak erabagiten iñarduela, ai Jauari azumbreko 28 maravedí ezarri jakozan. Eta kanpoko txakolñari, ardauari beste, eta gaiñera San Juan egunean Gorozikako erromerian edaten zanari be sartuta. Eta onetan Antxustegi ziñegotzia aurka agertu zan, esanaz gorozikarren oiturea zaindu egin bear zala, sisarik ez eukala eta oitura orrek ba eukazala eun urte.

(Udal Artxiboa, Libro 8 de Decretos 1838-1853).

Erria orrela arduratzeko, kontuan euki bear da Gorozika auzoa, zati andi baten, erri eta eleizaz Ondarroa dala.

Bertan dagon san Juan ermita, Ondarroa'ko parrokiari dagokiona



da.

Ez jakin noiztik datorren, baiña lenengotatik agertzen da Ondarroa'n «San Juan en el monte» izeneko kofradia.

Ermita orretan egindako ezkontza bakan baten agiria agertzen da Andra Mari parrokiko «Libro 1.º de bautizados y casados» dalakoan. Onela agertzen da:

«Item este dicho anno de mil(e quitos y setenta y siete a los trece días del mes de Abril casé in facie Ecclesiae a san Joan de Gorocica y Maria Domingo de Gorocica, a Sancho de Gorocica y Maria de Gorocica, hermanos con hermanas, en la ermita de Gorocica, estando presentes por testigos Miguel Ochoa de Virriatua, Fraco de Arechaga y Domingo Abad de Gorocica y otros muchos vezinos desta villa abiendo primero echo las proclamas conforme al Santo Concilio Tridentino, la primera a veinte y cuatro de Febrero, la segunda a tres de Marzo y la tercera a diez dias de dicho mes de Marzo. En fé dello firmo de mi nombre. Aguiriano».

San Juan ermita au, azkenengoz, 1973-74'n barriztu zan.

Goizeko amaiketan, 74'ko san Juan egunean, egin zan bere bedein-kapena. Bedeinkatzalle, Anasagasti bermeotar fraile frantziskotarra, Bolibia'n gotzain dagona. Beragaz batera meza emoten, Jauregi, inguruko abade taldearen bikarioa, eta ondarrutar abade ziran Luziano Urruzuno, Juan Belaústegi, Agustin Azpiri eta Juan Maria Burgoa jaunak.

Ba dagoz auzo onetan etxe batzuk lurrez Berriatua diranak. Baiña eleizaz eta merkatuz, Ondarroa'rako lotura dauke bertako etxeak.

Eskoletxe bat egon zan, baiña urteak dira zeregin ori lagata dagola.
Igande eta jaietan meza egoten da eguerdian.

Gorozika'ko jaia San Juan egunean ospatzen da, eta oiturazko da
erritik jende ugari joatea, batzuk gofzetik, eta illuntzean, erromeri alaietan
errirratzea, errian sartu eta kalez-kalezkoa egiteko.

Gorozikarren esaera:

Guzur bat esan neban Gorozikan,
ni baiña lenago zan Asterrikan.

Gorozika'rako bideak:

Kotzez ibilteko: Arantzibia'ko zubirarte bide nausitik joan eta bertarako
bide berezia artu. Bide au lramategi baserrietaraño be elduten da.

Beste burdi bideak:

Errenderi eta Allíri zarretik gora daroana.

Ondarroa'n Zaldubide kalean sartu ta Zalduburutik duana. Au da
eleiz bide jatorra edo anda bidea esaten dana.

Orrez gaiñera, luzeago artuta, Baraikupeko bidea, San Juan Txurritik
Burgo'ra daroana eta abar.

Gorozika'ko ermitari buruz zerbait esan lei.

Jakiña da antxiñako denporetan, eleiz eta ermita inguruetan, ermitañoak
biziten zirala batzutan eta bestetan andrazkoak, «beata» edo «se-
rora» deituraz ezagutzen ziranak.



1593 urteko dokumentu baten irakurten denez, urte aretan Antigua'ko eleizan iru beata egozan eta San Juango onetan iru serora.

Ermita onek solo bat eta mendi bat euki zitun bere jaubetasuneko, eta eurek emoten ebena ermita zaintzen eralgiten zan. Baiña 1855 inguruan Estadua jaubetu zan eurekaz eta berak errentak kobratu.

Santa Kutz ermitak be bere ondasunak eukazan. 1828'ko agiri baten agertzen denez, ermita ondoan serotetxe bat, gero belardi eta txara zan lurralde bat eta beste zatitxo bat Doistuganekoen inguruan.

1865 urtean ermita barriztu egin zan. Dolores Ibarloza izan zan barriztapen ori bere kontura artu ebana, eta esandako etxe ta soloak emoten ebenaz ordaintzekotan. Andre au 1892 urtean il zanean, lanak ordainduta egozan eta seireun eta berrogeitabat errial parrokiaren alde egozan.

1828 urteko ermita onetako zeaztasunetan. Kristo'ren irudia erdian eta albo banatan San Antolin eta Santa Luzia'ren irudiak egozala esaten zan.

Erritik ermita onetara duan Kurutz bideko arrizko kurutzak 1898 urtean asi eta 1902 bitartean amaitu ziran.



«Santa Kutz» ermita. Bizkai eta Gipuzkoa'ko mugar].



G
O
R
O
Z
I
K
A



Gorozika, auzoko ermita, barriztuta.

GURE BASERRIAK

Irurogeitak baserri batzen dira inguruan.

Etxez-etxe lortu doguz euren ikuspegi zuzenak.

Gaurko ikuspegia agertuko dogu, eta etxeen oraingo argazkiak.

Auzoz-auzo, era onetan lekutu geinkez eurak:

ERRENDERI

Aldekoa erdikua.

Alliri barri.

Alliri zar.

Andikoetxe.

Antxikua.

Arraüeta.

Goiti.

Goitiniz.

Ibaibarriaga.

Ibarguen bekua.

Ibarguen goikua.

Kamiñaga.

Kitarranekua.

Patrokua.

Santa Ana.

Saroe.

ASTERRIKA

Aldekoa.

Alipasolo.

Anakabe goikua.

Antigua.

Arriaga.

Arteta.

Asterrikakua.

Aulikiz.

Bekoetxe.

Buenos Aires.

Burgaña.

Errementarikua.

Galtzuaran.

Goikoetxe zarra.

Ikaita barri.

Ikaita zar.

Itola.

Konde Etxebarri.

Lurgorria.

Orueta barri.

Orueta zar.

Serotetxe.

Solozarreta.

Urkiaga bekua.

Urkiaga goikua.

Zelaikua.

Zezermendi.

GOROZIKA

Akilla.

Allenda.

Antzone beko eta goiko.

Atxondo.

Baraiku bekua,

Baraiku goikua.

Basterretxe beko eta goiko.

Beazkoa.

Burgo.

Goxizkoa.

Iramategi barri.

Iramategi zar.

Mokaro.

Munabe.

Ubilla.

Zaldu.

GURE INGURUKO ERREKAK

Erreka-iger	Iturribarri
Galtzuaran	Kamiña'ko iturria
Sakonandi	Alliri'ko iturria
Bidestuko-erreka	Aitxabaleko-erreka
Arrixa'ko-erreka	Arriandiko-erreka
Urkixa'ko-erreka	Txori-erreka
Itola-erreka	Antzosolo-erreka
Alipasolo-erreka	Muxu-erreka
Espalda-erreka	Praille-erreka
Mutxabe	Zaldu-erreka
Lapabide-erreka	Mokao-erreka
Astondo	Goitizko iturria
Iturralde	Arrandola-erreka
Emendiko-erreka	

KATASTROA

Zerga-errollderako (katastrorako) Ondarroa, kaletik kanpo, inguru oneitan banatuten da:

Albialdia	Goxisko
Allenda	lketzaldia
Amesti	Iturraspe
Ansorena	Kamiñalde
Antigua	Kamiñibar
Arandiko	Kasetalde
Arkotxa	Korteta
Arrialdia	Koskabil
Arriandieta	Lanbarri
Arta	Mokaro
Atxandi	Montealegre
Atxondo	Munabe
Basterretxe	Mustutxurru
Bidarte	Santa Clara
Errekaguen	Txanbete
Errenderi	Urkamendi
Etxandi	Zabaleta
Galtsuaranalde	

NEURKIN BATZUK

Asierako, etheen nortasun, duintasun, apaindura, itxura eta lekutako egokitasuna erakustea, argazki bidez ikustea laga daigun.

Bear ba da, neurkiñik onena, eleizagaz eukitako artu-emonen bidez atara giñei. Etxe bakoitzaren emaitzen ezaugarri da. Emaitzetatik dator ondasuna.

Eleizak ba eukan, bere bizibiderako, sarrera jakin bat. Eta uste dogu, erritarrak eleizeari eutsen lotsa eta bildurra kontuan eukita, eta bestetik erri ezaupiderako eleiz-gizonak euki izan daberen zuzen-zuzeneko artu emona jakinda, etxe bakoitzak emoten ebana, ondo neurtua izango zala.

Parrokietako kontuak erderaz egiñak dagoz. Geienak beintzat. Eta zeaztasun batzuk gaurkoei iges egiten dauskue.

Esate baterako. amarrenak eta asikiñak (diezmos y primicias) zeaztuten diran kontuetan, Ondarroa'ko eleizako paperetan «cuartas» eta «cuartillas» erabilten dira gari eta arto kontuetan.

Ori orrela. gu, gaur, antxiñako neurriak erabili ezkerro. «anega», «imiña», «imillaun» esaten ausartu bear giñateke.

Uste dogu «cuartilla» erabilten daberenetan «imillauna» esan naiko dauala, eta «kuartak»... ez gara ausartzen imiña erabilten, imiña bakoitza lau imillaunegaz osotzen zala irakurten dogulako. eta alderantzi andia billatzen dogu gure eleizako «kuartak» etatik «kuartillak» etara.

Ori dala ta eta kontuan eukita gure neurriak ez eukela ondoren bardiñik lurralde batetik bestera. eleizako liburuetan agertzen diran berbak erabiliko doguz.

Eta txakoliñari buruz, azumbreak eta kuartilloak. bertako antzera.

Ondarroa'ko parrokiko liburuak gauza bat erakusten deuskue: Etxe guztiak, kaletar eta baserritarrak, ordaintzen ebela gari eta artotan euren amarrena, edo da eleizarentzat laguntzaria.

Ordez, berrogei ta amazazpi (57) baserri etheen izenak agertzen ba dira be amarrenekin laguntzen ebenen artean. iru (3) bakarrik dira txakoliña emoten ebenak: Arteta, Burgo. eta Zalduburu, eta kaletar askok baiño gitxiago.

Onela Arteta 36 azunbregaz agertzen da, Burgo 35 gaz eta Zalduburu 5 gaz.

Kaleko etheen artean ba egozan berrogei ta bat (41) etxe txakoliña eskintzen ebenak. Ba egoan 90 azunbre emoten ebana. Geiena zan.

Nai eta gero etxe bakoitzari bere emokuntzak bakoitzaren ornan zeaztu, danen lauki bat agertu nai dogu. era onetan ikuspegi zabal eta itxuratsu bat errezago lortuko dalako.

Orra baserri izen eta jaubeen nortasunagaz batera, etxe bakoitzak zelan laguntzen eban:

GOROZIKA AUZOA

	GARIA				ARTUA				TXAKOLIÑA
	ZAR		BARRI		ZAR		BARRI		Azun break
	Kuartak	Kuarti Ilak	Kuartak	Kuarti. Ilak	Otzara	Otz. laurden	Otzara	Otz laurden	
IRAMATEGI. Lorenzo Urruzuno. . . .	6		6		3	3	4		
IRAMATEGI ZAR. Ignacio Elustondo.	12		2		10	3			
ATXONDO. Jose Lorenzo Gandiaga			13				5	2	
ALLENDEZABAL. Pedro Ireta			7				3		
UBILLA. Andres Bikandi	4	1	11		9		1		
ALFONSOKUA. Antonio Lezaola	14				9		3		
BEAZKOA. Andres Antxustegi	9				4				
BEAZKOA (Sub dono) Miguel Antxustegi	7				5				
ANSORENA. Miguel Etxea	12		4		7		1	2	
ANSORENA. Miguel Bikandi	7		5	2	8				
SEROTETXE. Jose Elustondo	5				3		1		
BASTERRETXE. Santiago Abaroa ...	11				4		1		
BASTERRETXE. Agustin Abaroa	8		2	2	7				
MUNABE. Jose Elu			9	2				9	
ZALDUBURU. Santiago Eizagirre									5
BARAIKOA. Jose Gandiaga	14				7				
BARAIKOA. Cosme Gandiaga	12		2		5		2		
SANTA CRUZ. Ignacio Antxustegi	6				1				
BURGOA. Francisco Iramategi	19				5		4		35
AKILLAr Bautista Esnaola			9				4	2	
ITXUSKIDI. Antonio Lezaola			4				1	2	

ASTERRIKA AUZOA

ARTETA. Lorenzo A. Badiola
 IKAETA. Francisco Guenaga
 ZEZERMENDI. Pedro Jose Juaristi
 ARRIAGA. Bernardo de Aranbarri .
 IKATZA. Domingo Guenaga
 URKIAGA. Jose Andres Arrasate
 ALIPASOLO. Jose Alkorta
 ASTERRIKAKOA. Jose Elordi
 BEKOETXE. Domingo Basterretxea
 ALDEKOA. Casa rural. Nicolas Arrate
 ZELAIAKOA. Jose Ignacio Usobiaga
 GOIKOETXE. Josefa Goigana
 REMENTERIKOA. Pedro de Amezti
 ORUETA. Pedro de Alegria
 GALTZUARAN
 ORUETABARRI
 ETXETXU. Jose Urberuaga
 AULIKIZ. Juan de Urkiza

EIZMENDI AUZOA

OLABE. Juan Bta. Olabarria
 ARGINGOA. Jose Antonio Bereikoa
 EIZMENDIZABAL. Jose Antxustegi.
 EIZMENDIZABAL. Jose Arana

GARIA				ARTUA				TXAKOLIA
ZAR		BARRI		ZAR		BARRI		
Kuartak	Kuati 4	Kuarrak	Kuatti llak.	O[rar°	kiurdeu	(brrr°	l,lu r llf,	
			20			8		36
10	2	11	2	4	1	6		
15				6		1		
11		6		6	2	2		
			11	7				
15	3	3	2	6				
11		5		4	1	2	2	
11		1	2	12				
3				1				
2	1	6	2	2	1			
7				2	1			
6	2	1	1	1	1			
9		1		8				
			17	6				
					3			
8		2		5				
10				7				
10		1	2	5	1			
8	2	1	2	4	2			

Garia eta Artoa

Garia eta artoa Ondarroan noiz sartu ziran ez dakigu.

Eurak sartu aurretik gosete andiak igaro zirala bai.

Gero biderik ezak, edo obeto esanda, orduan egon eikezan bideak ez eben laguntasun andirik emoten, batez be bertakoak ez ziran gaikiak erraz batetik bestera erabilteko.

Ba dirudi lenengotako garia, eta garia lez, beste aleak (granoak), itxasoz ekarten zirala gure errira. Emengo emaitzak eta gaikiak itxasoz urteten eben edo ataraten ziran lez.

Biderik ez daukan itxasoa izan zan gure erri eta antzerakoen arnasa.

Naparroa alboan eukita, eta gure odoleko lurraldea izanarren, lenago asi ziran Ondarroan Galizi eta Andaluziko ardaauak, naparrak baiño.

1623 urtean Ribadabia eta Andaluzia'ko ardauen aipamenak egiten dira erriko liburuetan.

Ba dauka orrek bere itxura eta zegaitia.

Gure itxasontzi batzuk Galizia'raiño ibiltzen ziran, itxas-ertzetik, edo emen esaten dan lez «kosterrez», aize indarrez, au da. bela zabaldu txalupetan, edo ta gizonen indarrez, erramutan.

Beste batzuk Cadiz eta Sevilla'raiño joaten ziran.

Etxeko zituen euskaldunak orrelako kaiak.

Sevilla'n, Indietako Artxiboa deitzen danean, ba dagoz ondarrutar itxastarrei buruzko fitxa batzuk.

XV garren gizaldian, Mediterraneo'ko merkataririk andienen izenak aitatuten diranean, an agertzen dira ondarrutar batzuk be. Eta Ondarroa'ri bere azken naiean dirurik geien laga eutsana, Domingo Garro, Ameriketako Indietara joan aurretik, Sevilla'n ibilia zan.

Beraz ango bidea eta ango artu-emona ezagunak ziran guretarrentzat.

Eta inguru a lez, goi aldetik, Bretania eta abar ezagutzen zituen gure txalopak.

Kontuan euki, kosta egin zala gure errietan koñaka saltzen lagatea. Eta ortarako baimena emon zanean, eta zelako koñaka ekarri eztabaidatu zanean, frantzetarra ekarteko esan eben emengoak. Or be, ziurretik, itxasoko erabilketa bitarteko.

Jakin bear dana da baita, onelako edariak, lenengotan ondo neurtuak egon zirala eta baimen bereziagaz, edo errezeategaz emoten ziran edariak zirala.

Gero, denporak aurreratuz. naparrak asi ziran ardaau sartzen. Ba dirudi Elorrio'n egon zala inguru onetako ardau erosle eta dendaria eta aren bitartez ekarten zirala errira ango ardaauak.

Itxuraz, ardaauak, antxiñakoen biotzak alaitzen zitun lez. bestelako ondoren zabar batzuk sortuko zitun errietan. Eta neurriak artu bear.

Orrelako bat 1785 urtean gure Udalak artutako erabagitik ataraten da. Urte orretan galerazo egin eben Ondarroa'n ardaua zaragietan etxeetara eroatea. Onela irakurten da, Udaleko Libro de...Decretos-1781 a 1789 (N.º 18) dalakoan: «...*que ningun particular pueda llevar pellejo (de vino) alguno a su Casa, pena de perderlo, y a más de dos ducados de multa por cada vez que lo hiciere*». (4-XII-1785).

Baiña aleetara, alikatzeko granoetara joan gaitezan.

Ikusi daigun gure erri giroa gai onetan.

1701 urtean Ondarroa'k larogei ta lau (84) foguera edo sua biztuten zan etxeak eukazan.

Kontu egin garai bardiñean, urte orretan. Berriatua'k eun eta irurogei ta amazortzi (178) eukazala eta gure auzo Lekeitio'k geiago oraindik, berreun eta ogei ta amalau (234).

Beraz igarten da Ondarroa txikitxo zala, edo bear ba da guretarak bananduta bizi giñala beste lurraldetan.

Edozetara be garean edo izan giñan lez agertu bear.

Eta erri txikia izanarren, gose andia egoan gure artean. Gose au ez zan urte bateko bakarrik izango. Ziurrago urtetako goseak arrakalatuta biziko ziran gure asabak.

Ikusi, bestela, zer gertatu zan 1711 urtean.

Danok dakigu garai aretan, gure errian, urtero aldatzen zirala erriko agintariak. Eleizan egiten zan deia urte barri eguneko meza nagusitan eta gero batzutan eleizan bertan, bestetan eleizpean, eta iñoiz inguruko ermitaren baten, meza ostean, egiten zan _erriko agintarien aukerapena, batez be alkate eta kofradietako maiordomoak izango ziranena.

Esandako urtean itxas kapitan bat aukeratu eben alkatetzarako.

Zegaitik?

Dirudienez aurrez zerbait gertuta egon eikean, edo ta bestela alkate barriak asierako gauetan zer pentsatu ugari erabili eban, edo ta goseak kezka bete eban.

Eta ba dakizue zer egin eban?

Urtarrilla'ren 26'ko Udal batzarreko agiri berbertatik dagon eran jasoko dogu. Irakurri:

LIBRO 6 DE DECRETOS

ABORDAJE DE UN CARGUERO BRETON

Sesión del 26 de Enero de 1711)

... estando así juntos y congregados: dió noticia dicho Sr. Alcalde (era alcalde el capitán Bartolome de Armaolea) que en conformidad de lo que verbalmente sería acordado en esta dicha Villa a causa de la falta de granos que experimenta en ella y en los lugares y probinzias zircunvecinas, el día veynte y uno del corriente més y año haviendo salido a la mar con chalupa equipada hacía abordado a un navío Breton que de la Prouinzia de Breñaña salió cargado de trigo para el Puerto de san Juan de Luz del reino de Francia y sin embargo de hauersele resistido su

maestre y protestado de los daños y otras cosas le hau a conduxido a este Puerto y aunque el día siguiente le uolb ó a hazer las mismas protestas y pidió lizenzia para que se le dejara continuar su Viaje se le hacía negado y mandado poner en plancha dicho trigo y Aba como resultaría de los autos en su Nave echos por mí Dado lo qual era notorio en esta dcha Villa como el que dicho Navío se halaua en su puerto y ría, y se hau a executado de comun acuerdo de dichos uez nos de esta dicha Villa, y como se hizo en los Puertos de las Villas de Lequeitio y Bermeo por la nezesidad que en todos hau a y ay con diferentes navíos que encontraron de dicha Prouinzia de la Bretaña, y que dicho maestre le había mandado que pusiese en Venta la referida carga al prezio que en los otros Puertos o como mejor le parez a tendría salida. Y que se hallaua dcho Maestre en ánimo de poner zinquenta Reales la fanega mayor de trigo y la de Aba a quarenta. Y que respecto de tener el mismo prezio en la dcha Villa de Lequeitio y ser de las zircunstancias referidas al dcho novío y su carga y también para que dicha Villa fuese abastecida, era nezesario que se le hiziese todo buen Passaje y por quenta de la Villa se comprase una parte de trigo buscando medios para el efecto. = Y haciendo entendido todo los dichos ofiziales del Regimiento y Vezinos dijeron que aprobaban y aprobaron todo lo así executado por haber sido segun que lo tenían conferido y dieron muchas grazias a dicho Sr. Alcalde por la buena obra y diligenzia que hau a hecho y mandado hazer y en atención a lo demás que contenía dicha proposición, de un acuerdo y con forma decretaron que se procure a dar el mejor espediente que se pueda a dicho navío y su carga sin permitir se saque parte alguna para fuera de la jurisdizión de esta dcha Villa por aora ezeptto a la Anteiglesia de Berriatua sí nezesitare para su comsumo y gasto y por quenta de la dcha Villa y para su abasto. se tomen y alonjen dozientas fanegas mayores de trigo y se pongan en poder de la Persona de la mayor satisfazion que eligieren dichos Sres del Regimiento y para su satisfazion y pago que se ha de hazer al Maestre busquen sobre esta Dcha Villa y Bienes de los Vezinos la cantidad de fierro o dinero nezesario a Interes que le an de ajustar segun que mejor pudieren para lo qual dauan y dieron Poder y facultad en forma sin limitazión de clausula ni zircunstancia alguna a dchos Sres Justizia y Regimiento y para que puedan mancomunar y mancomunen en las obligaciones que hizieren de todos los Vezinos presentes en este Ayuntamiento y a los que se hallen ausentes de el por enfermedad o en otra forma que quienes prestaron Voz y causión segun que mejor pueden y a lugar obligándose como desde luego obligan a su seguridad de la dcha mancomunidad attento la nezesidad es grave y se halla esta dcha Villa sin medios por aora para el efecto. = Y para que se de puntual satisfazion al empleo o empeños que se contrajeren para dcho efecto así bien ordenaron y decretaron que las dichas dozientas fanegas se vayan consumiendo en el abasto de esta dicha Villa

según que la nezesidad que obiere y su prezio sea sumando el coste y costas y dicho Interes y el producto de ellas entre en poder de la tal persona que así fuere elegida por dichos Señores del Regimiento conforme se vayan despachando sin que por ningun caso y en manera alguna tengan interbenzion dichos Sres del Regimiento, síndico Pror Gral ni otra persona alguna en rezibir y cobrar el valor de dicho trigo ni parte suyo para que de este medio y sin dibertir en otra cossa ni dependenzia comun de la Villa ni particular sirva el producto de dicho trigo para la paga y satisfazion del enpeño que se contrajere para su compra. Y que así para solizitar la cantidad de fierro o dinero nezesario como para ajustar los Intereses elejir la persona en cuyo poder a de entrar el trigo y su Valor y disponer las ocasiones cómodas y nezesarias para el consumo de dicho trigo y acomodar su prezio nombraban y nombraron a dichos don Juan Francisco de Aldaola y Juan Ochoa de Brevilla para que concurren en todo ello con los Sres de Justicia y Regimiento y lo executen y dispongan sin que para ningun caso de los espressados aya nezesidad de convocar ni juntar Ayuntamiento de Vezinos. Y para que en la saca de dicho trigo no se experimente lo contrario de lo que va decretado ordenaron que ningun Vezino ni morador saque para fuera de la dcha Villa partida alguna de dicho trigo pena de perdimiento de la cantidad que se le encontrare y de diez ducados por cada vez.

Así bien decretaron se escriba a los Sres del Gobierno Unibersal de este Noble Señorío para que esta dcha Villa se la franqueen los despachos nezesarios para conducir alla veinte toneladas de trigo de la que tiene permitidas su Majestad christianísima y que se puedan trae^{r en} dicho Navío franzes u en otro...

Tambien decretaron que attento se Va acavando el chacolin de esta propia cosecha se pongan en Candela la producion de Vino Clarete y tabernas desde el tiempo que así se acabare a la de Todos Santos y que a cada azumbre del vino se le impongan ocho mrs de los dos para el arbitrio que tiene tomado este Noble Señorío y los seis para ayuda de sobrellevar las cargas y obligaciones desta dcha Villa y que dicho Impuesto de los ocho mrvd tambien se ponga en candelas.

De lo cual decretaron ante mí el escrivano del que doy fe y firmo.

Ante mi; Domingo de Burgoa

Ondarroa'n, alkaterik geienak, barriro aukeratuak izaten ziran. urte baten ez ba zan bestean. Eta asko izan ziran urte askotan zeregin orretan ezagutuak.

Armaolea kapitan au ez da geiago alkate ezagutzen eta agertzen. Ez aurretik, ez atzetik.

Urte asko igarota gero dator beste Armaolea bat, baiña itxuraz seme edo lobaren bat izango zan.

Edozetara be bere egitada or geratzen da, batetik gure itxastarren

jokabideak zelakoak izan eikezan erakuspide zabal bat emoten dauskulako, eta bestetik bear ba da alkate makilla eta itxas-ontzietako lema neurri bardiñean erabili nai zitun alkate ameslari baten duitasuna erakusten.

Ezpairik ez dago Armaolea alkate eta kapitanaren egitada, biotz onekoa izan zala. eta lapurretaz baliatzeko gurari barik. Gosea igarten da gain gaiñetik. Eta jaubetasunaren ezaupidea bestetik, ordaindu barik bialduterik pentsatu be ez zalako egin. Eta erriaren zintzotasunaren gain, erriaren ezintasuna be ezagutu bear da.

Urte oneitan eta geroago be, garia kanpotik ekarri bear zan.

Eta ikusten da gure bideak, gaur ezagutzen ez doguzan orduko bideak, ez zirala bide ziurrak gariarentzat.

Kontuan euki bear da, gaur ezagutzen doguzan inguruko bideak, bai Gipuzkoa aldetik errira datozenak, eta bai Bizkai aldetik datozenak, XIX garren gizaldiaren erditik onuntzagokoak dirala. Eta lengoak, beste milla zurrulo eta estukeri eukezala euretatik erraz ibilteko batetik, eta bestetik ziur ibilteko.

Ikusi, bestela, 1756 urteko Martia'ren 7'ko Udal Batzarrak erabili eban gaietako bat.

Dagoan lez argitaratuko dogu.

Udaletxeko «Libro 6 de Decretos» etik ataraten dogu, eta 1756'ko Martia'ren 7'ko batzarrekoa da.

...Habiendo manifestado el Sr. Alcalde de Motrico escripta en respuesta de la que su Merced le escribió providencialmente en razón de algunas biolencias que barios vecinos de Motrico y especialmente de los del Baile de Mijoa han echo a los Zurroneiros probeedores de Arina a esta villa y esperimentándose después de dicha Carta respuesta que es satisfactoria a la de su Merced nuevas extorsiones en haber quitado la maior parte de la Arina que traían, para que en adelante se quiten iguales estorbos de los Caminos Reales y públicos donde deben transitar los mantenimientos de los Pueblos Vecinos, Decretaron se buelba a escriuir a dicho Sr. Alcalde de Motrico con propio, significándole el sentimiento que le han causado a esta Villa los dichos atentados de sus súbditos y rogándole no de lugar a quebrantar la buena armonía de estas dos Villas y recursos en defecto se hallara esta obligada a hacer».

Urteak aurrera eta gari kontuak ez eukan ondoren onik.

Aurrera joanaz, zazpi urte geroago, 1763 urtean, barriro bretonen txalopa bat egoan gure errian gariz beteta, baiña erria estu eta larri dirurik ezin batuta, eta estu baita be eta kezkatu, erbestetik etorten ziran merkatarik bertarako egoan garia eroango ete ebenez.

Jakiña da, lengo denporetan, merkataru txalopak sartzen ziranean, inguruetara jakin eragin bear izaten zala, txalopako gauzak saltzen asi aurretik.

Onetan eskubide berezi bat erukan Berriatua'k be gure portuan. Etorten ziran txalupak ezin saldu izaten eben gairik, berriatuarrak euren guraria erakutsi barik.



Gardotza'ko kanpai torrea

Oraingo egoerari buruz, au irakurten da, «Libro 6 de Decretos» dalakoan:

(19-VI-1763)

«Decretaron, que por agora se thomen del Breton que se halla en este Puerto doscientas cincuenta fanegas de trigo a los treinta y seis reales en que se han publicado la fanega maior a cuia cantidad a parecido suficiente sobre la que se halla en el Posito a esta Sala Concejil, traído a la ciudad de San Sebastian por el Sindico de esta Villa con Orden habida en cumplido Regimiento. Y que respecto a que en poder de la Alondiguera se halla en ser la cantidad de dinero correspondiente a unas cien fanegas y falta lo necesario para la paga de las otras 150, en nombre de esta u lla, y contando el producto desde mañana a la mañana y antes que lleguen los forasteros, se saque dicha cantidad de las 250 fanegas: y sobre la recaudación de estos caudales que desde el mes pasa-

do siguen del importe de la partida antecedente y presentes se le encarga al Sindico el maior ciudadano para que a los que han abanzado el dine-ro se les de puntual satisfazion para el tiempo estipulado».

Urte batzuk geroago, Ondarroa'ko Udalak Urun Serbitsurako itun (kontratu) bat egin eban Bergara'ko Pedro Martin Iribe eta Eibar'ko Joa-kin Kurzeta'gaz.

Begararrak, astero, amaika anega urun ekarri bear zitun errira eta andik gora bear zana eibartarrak ekarriko eban.

(1775'ko Urtarrila'ren 31 ko batzar agiritik).

ARDURA GEIAGO

Inguru onetan arto asko batzen ebenak, Ziarrotza'ko kanonigoak zi-ran.

Kontuan euki bear da Kolejiata orreri lotuta inguru andiak ikusten dirala.

Baserri batzuk bertakoak emondako eskubidez sortu ziran, euren-tzako eukezan mendietan etxeak jasoteko baimenen bidez. Baiña base-riren lotuerak be oparoak ziran.

Orrela angoak saltzeko lain batzen eben. Eta Ondarroa'ko kaia ba ekien erabilten euren aleak bertatik kanpora bialtzeko.

1781'ko uztailla'ren 22'an. bosteun anega arto bialdu nai zituen Bil-bo'ra, emengo portutik, bertako txalopa baten.

Ondarroa'n denpora orretan ez egoala premiñarik, baiña erriko bizi-lagunak asarre agertu ziran, orain lez. artoa kanpora bialdu nai zanetan.

Ziarrotzako kanonigoak mutrikuar bat ipini eben bitarteko, erriaren naia igarri al izateko.

Onek Udaletxera jo ta jakin nai izan eban Udalak Bilbo'ra bialtze ori galerazo eikean edo eragozpenik ipiniko ete eban.

Eta Ondarroa'ko Udal gizonak erantzun eutsen, oraingoaz errian ez egoala ainbeste larritasun eta premiñarik, eta origaitik bialketa ori egitea zillegi zala. Baiña premiñarik egon ezkeru, erriak geratu eikeala salneurri zuzena ordainduta.

Ikusten danez, lenagotik be ori izan zan gure erriaren politika. Al zan eran, baiña beti be ordainduta, erriaren janaritzerako bearrezko zana errira ekarri edo errian geratzea billatzen zan. Eta iñoiz erri zorra be egin eban, janaritzea ziurtatzeko erri-zor edo zentzuan dirua eskatuta.

1793 urtean, Otsailla'ren 24'an, Jose Egurrola sindiku nausiari bai-mena emon jakon. Ramon Unzeta'gaz erri-zor lez, milla dukat aurrera-tzeko ituna egiteko, erriaren jan-bear izanetarako aleak erosi al izateko.

Udal agirietan onela agertzen da erdaraz: Acuerdo de la sesión del Ayuntamiento. -«Otorgar poder a José de Egurrola, síndico procurador general, para que contrate un censo de 1.000 ducados con Ramon Un-ceta, para con él hacer acopio de grano para la Villa.»- Pedro Bascaran

zan idazkari eta Migel Antonio Goitia, alkate.

Alaz eta ba dirudi denporak aurrera eta gari geiago batzen zala errian. Ez bakarrik baserrietan.

Erriko edo kaletar batzuk be ibai ondoan eukezan la saillak aldatu egin zituen, eta euren iatzak «en tierras de pan sembrar» biurtu.

Orrek jaubetasunari buruzko auziak sortu zitun.

Udal etxean azal eta izen bako liburu zar bat dago. Ba dirudi 1790 urtean asten dala. Lenengo 45 orrialdeak galduta daukaz. 1796 an amaitzen da. Eta 1792'ko Ekainilla'ren 20'ko orrialdean, Kamiñaga eta ibai arteko iatza bat Juan Jose Eribe'k mugatu egin dabela esaten da, ain zuzen be solo biurtzeko. Jaubetasunaren eztabaidak sortzen ditu jokabide orrek. Eta esaten da: «*al parecer los primeros ocupantes de las partes bajas del río, podían como riberas que baña el mar en sus fluxos o mareas de aguas uivas regulares, considerar como suyos los juncales*».

Dana dala, gari eta artotarako lurak ugaritzeak, erriko plazan gari joteak egitera beartuten zitun ondarrutarrak, eta orrelako testigantza bat Udaleko batzar baten billatzen dogu.

Irakurri. Libro 7 de Decretos'tik atarata, 1827'ko Uztailla'ren 11'ko batzar agiriko txostena:

«...En este estado el Escribano hizo presente que algunos particulares de esta cilla le habían pedido permiso de trillar el trigo en la plaza pública de ella, y delibérase el Ayuntamiento si concedería o no licencia a los que pretendían» A un tiempo acordaron unánimes y conformes que se pueda continuar así como hasta ahora se ha continuado en dicho trillo bajo las restricciones y condiciones siguientes: Primera, que cada Cosecho que pretenda y trille el trigo en la plaza había de pagar y satisfacer al Síndico que es y fuere y antes de sacar el trigo de ella ocho maravedís vellón por cada fanega, cuyo importe se ha de imbertir en reponerla, sin que se permita por ningún motivo otro destino ni inbersion. Segunda, que si cualquiera de los trilladores causare algún daño o perjuicio sea con carro o en otra forma en la referida plaza, además de los ocho maravedís, será de su cuenta y obligación reponer el daño que causare y al carro que se introduzca en la misma sea con carga o sin ella, se le han de exigir ocho reales uellon irremisiblemente, sin que para su excusa sirban excusas ni pretextos...»

Garia eta artoa ugaritzean, labak be ipini zirán. Erriko batzuenak. Bai eta erri berberarenak be. Onetan be arduratu ziran udaleko ardurdunak.

1906 ko udal batzarrean esan zan labaetan geiegikeri asko egiten zirala. Eta bear ba da batzuen ase-ezinkeriak eteteko, eta ziurrago erriko asarreak biguntzeko. Udalak bere labak eskiñi eutsezan ogikiñei, erri baimen barik preziorik ez karutu edo igotzekotan.

Ba dirudi laba kontu onetan asarre ugari sortu ebela eta errian amaitu orde zgora be joan zirala asarreak.

Maria Antonia Arriola'ren labak, bear ba da orduko ogikiñak. asareak edo garrazkeriak sortu zitun. Bilbo'ra salatu eben. Ez jakin zelan konpondu eban bere auzia. Baiña 1806 ko Azillaren 9'an, okin orren karta eztabaidatu zan udal batzarrean, eta Udalak ipiñitako baldintza eta arauetan bere laba eta andre-langilleekin lan egitera eskintzen zan.

Artibai egalak eta inguruak, eta ibai orren urak, burdiñola eta errorentzako ur onak izan ziran.

Alaz eta Ondarroa'n, dirudienez, ez zan ezagutu errotarik 1818 urte arte, eta 1818 ko Irailla'ren 27'an, Domingo Jose Arano, erriko bizilagunak eskari bat egin eutsan Udalari, errota bat ipinteko baimen billa, Iturribarri deitzen dan lurraldean, Errenderitik datorren ibaiaren egalean.

Eta baimena emon zan, errota ori lekutu bear zan lurraldeagaitik onenbesteko bat ordaintzekotan.

1818'ko Irailla'ren 27 orretako Udal Batzarreko agirian au irakurten da:

«... *Se leyó el memorial de Domingo Jose de Arano vecino de esta dicha villa relativa a que se digne conceder permiso para que pueda hacer un Molino en el término llamado Iturribarria junto a la ría que baja de Renteria y al efecto pagaría a justa tasación el terreno que necesitase para el expresado... Acordaron que se le concedía el permiso de hacer la obra con la expresa calidad de que ha de pagar un tanto por la tierra que ha de ocupar*».

Andik bost urtetara, 1823'ko Uztailla'ren 3'ko batzarrean errota ori zala ta inguruko lurraldetako jauberen batek bere asarrea agertu eban Udalera eta batzarrean erabagi zan errotariak ibai nausiko ibilketa libre laga bear ebala, eta era batera zubitxo bi egin bear zitula, bata errotaren goi aldetik eta bestea Jose Mari Murgaren soloaren barrenetik, len solo orretarako eta inguruTako igaro bidea egoan lekuan.

«*Acordaron que el Molinero Jose de Arano deje expedito el tránsito de la Ría principal y que haga al mismo tiempo dos puentes, el uno junto al Molino por la parte de arriba y el otro junto a la heredad de don Jose Maria de Murga por donde estaba antes el tránsito de dicha heredad y demás del contorno*». (Acta 3-Julio 1823).

Urte batzuk geroago, gari eta arto kontuan Ondarroa gure erri au nasaiago edo ta ugaritsuago ikusten dogu.

Or datoz, len argiratu doguzan orri batzuetan be ikusten da, eleizak baserrietatik artzen zitun gari, arto ta txakoliñaren zeaztasunak.

Baiña ez ziran baserritarrak bakarrik, eleizari amarrenak emotera beartuten ziranak.

Kaletarrak be emoten zituen amarrenak.

Eta baserritarrenak, ez birresatearrean, alboan lagata, kaletarren artetik emaitza oneik artzen zitun eleizak.

147 «kuarta» gari.

66 «kuartilla» gari.

67 otzara arto.

66 otzara laurden arto.

Eta 1271 azumbre txakolin.

Eleiz zerrendetan larogei ta amaika kaleko etxe edo bizitza agertzen dira 1828 urtean. Eta ez dira danak ordaindu edo ta eskintzak emoten zituenak, batzuk zer emon be ez eben eukiko-ta.

Edozetara be, Ondarroan, batera edo bestera eleizarentzat emoten ziran amarrenak, aleetan, onela osotu leikez:

	Garia	Artoa		
	«Kuartak»	«Kuartillak»	Otz. laurden	
Goimendi auzoan	44	6	21	
Gorozika auzoan	220	7	84	14
Errenderi auzoan	115	18	69	15
Asterrika auzoan	182	20	105	12
Kalean	147	66	153	59
Guztira	708	117	432	100



Gaztaiña

Noiz sartu ete zan gaztaiña gure errian?

Ustea da erromatarrekin batera sartu zala Euskalerrian zugaitz onurakor au.

Eta ezpairik ez dago euskaldun zarren artean bere frutuak mesede asko eragin ebela.

Gaztaiñadi ugari egon ziran gure erri berbertan eta ingurutan. Eta gaztaiña izan zan gure zarren gose askoren keridugarri.

Orrela zalako artzen ziran bera zaintzeko ainbat erabagi, eta batez be udal gizonak. erri agintariak izaten ziran ardura orren zirikalari eta eutsigarri.

Batetik gaztaiñak gosea kentzen eban.

Bestetik. beste janari batzuen salneurriari eusten eutsan.

Erri liburuak arakatzean, ori ziurtatzen daben erabagi eta aginduak billatzen doguz.

Ara bat:

«23-XII-1693.

Donosti'tik erbesteko txalupa bat Ondarroa'ra etorteko danaren zurumurrua dabil gaztaiñak eroateri jarraitzeko asmotan.

Uda la orren aurka jagiten da.

Egoera larria oartzen da errian, gaztaiña gitxi dagoelako, eta orrela-ko janari baten utsuneak bizi modua asko karutu leikealako.

Erri onek, bertako erritar eta bizi-lagunak eta ingurukoak, gose eta premiñaz estutasun eta larritasun ugari igaro dituez, aurtengo udabarri eta uda bitartean ikusi izan dan lez... Eta gosete onetatik ente eta izurrite andi bat sortu zan, eriotz ugari batetik eta gaixo arriskutsuz kutsututa asko geratu zirala.

Origaitik Ondarroa'k erabagiten dau, Gernika'ko Batzar Nagusiei eskatzea gaztaiña erbesteko erreinuetara bialtzea ukatu bearra, batzar aretan eztabaidatua izan dedilla».

Ez zan gizaldi orretan amaitu gaztaiñaren ardura, eta bear ba da bere onurak bardindu eta bastertu eragingo zitun beste igalirik be ez zan oraindik billatzen.

Origaitik, iñoiz gaztaiña erbestera bialtzeko aukera egongo ba zan, aletin egiten eban erriak aurrez beste antzekoren bat ekarri ete zan ziurtatzen.

Begira, urte batzuk geroago zelako erabagiak artzen ziran:

«Aurten uzta edo kosetxa txarraren itxura dago eta frutu eta aleen ez unea dagolako, ez da komeni gaztaiña kanpora bialtzeko baimenik emotea.

Eta aurrerantzean, baimena emongo ba da, aurrez alekiak ekarri ondoren izan bearko da».

Urteak aurrerago. giro bardiñak iarraitzen ebala erakusten dauku

1752 urteko Ufrilla'ren 10ko erabagi batek:

«Eta esan eben ez zala baimenduko gaztain-fruiturik kanpora bialtzerik, eta era onetan erantzuteko Bizkai'ko Sindikoari».

Urte bete geroago, 1753 Irailla'ren 23'ko batzarrean, Liburu berbertan esaten dan lez, barriro lengo antzeko erabagia artu eben gure erriko arduradunak:

«Beste urtetan gaztaiña kanpora bialtzeko artzen diran aginduak artu baiño len jakin eragiten dala, oraindexek aginduta geratzen dala, ez 'dala bialtzerik baimenduko, errialde onetan benetan premiñazko zan frutu eta alikagarria dalako».



Akilla'ko trontza serra

Gaztañadi batzuk

Jaube bakarren gaztañadiak izan eikezanetatik gain, erriak bereak zitun gaztañadi andi batzuk eta eurak zainduten alegintzen zan.

1704 urteko zerrendan, erriaren jaubetasuneko lez agertzen diran gaztañadiak oneik dira:

Sakonandia.

Ikaieta iturri.

Gorozika bideko Elexaurrea.

Iramategi.

Etxatxua, Baranigo arte.

Itxuskidi.

Igorox.

Urrengo urtean, zeaztasun batzuk geiago emoten dira orduko gaztañadiei buruz.

1705. Onela zeaztuten dira liburuetan:

Elexaurretik Etxatxua arte. Gorozika'ra goazen bidearen be aldetik dagozanak.

Zaldu aurrekoak.

Etxatxua'tik Baraiko'ko soloak arte eta Gorozika'ko bidearen goi aldean dagozanak.

Itxuskidi'tik Bidegorri'ko Errotaren zurrumba edo presara dagozanak.

Ikaieta.

Sakonandi.

1709 urteko zerrendan onela banatuten dira:

Elexaurre, Astilleru aurre eta Etxatxua izenekoak, Gorozikarako bidean.

Baranigo'ko giblean, Etxatxua'raiño. bidearen goitik. (Kontuan euki lenengo liburuetan Baranigo eta Baraiku izenak erabilten dirala toki bardiñari deitzeko).

Itxuskidi.

Ikaieta, askorentzat Iturralde deitua.

Sakonandi, Galtzuaran'en.

Leaegi kapitarena.

Eta Berriatua'ko Arane inguruko barriak.

Ikusten danez. erriak, bere lurraldetatik kanpora be. Berriatu'ko lurretan be, ba eukazan bere jaubetasuneko gaztañadiak.

Gaztaiñen azkena

Noiz, zek edo zegaitik galdu ete ziran ainbeste gaztañadi?

Gaztaiñaren azken denporetan, arerio zital bi euki zitun, bere kaltean bete-betean eta erruki barik jokatu ebenak: orriak jaten eutsazan kokoa eta sustraiak jaten eutsazan ongoa.

Lengo gizaldiaren azkenetara asko ugaritu eta zabaldu zan gaztaiñaren gaixo bikoitz au.

1871 urtean zabaldu zan Lekeitio eta Ondarroa'ko bitarteko gaztañadietan eritasun ori ugari igarten zala. Ain zuzen be erri bien arteko bide barria egiten asi ziran aldian. Jakiña da, ta. Lekeitio'tik Ondarroa'ra-

ko bide zehar edo errepidearen egitura 1870- 1880 bitartekoa da.

Urte batzuk geroago, gaitzak Baiona alderako bideetan jarraitu eban.

Gaixo bikoitz ornen ondorenez, gure gizaldiaren asierarako, ingurutako gaztañadiak arrakalatuta ikusten ziran.

Itxasondoko frutua zan gaztaiña.

Toki epel zalea.

Len gaztañadi ziren tokiak, gaur piñadi biurtuta ikusten doguz.

Bizkai gaztaiña zala esaten da gurea. Morkalatza.

Gure gurasoak ba ekiezan Andra Mari gaztaiña, saroe gaztaiña. naarbera, itxas- gaztaiña eta abar bereiztuten. Gogoratu gaztain mota ezagun bat: gaztain zimela. Kantuetan be sartu zan au: Ator, ator mutil etxera, gaztaiña zi melak jatera...

Oraindik geratzen dira ondo banakak. Gitxi eta jausi, igartuten. Baserri batzuetan be gaztain-aga eta orrelako makillak gordeten dira. Baiña gaur gitxik dakie kalean gaztain lakatza zer dan, gaztain arrakalatua zer dan.


Gaztain denporak joan ziran.

Gaztaiña zura, arbia lurra; nik ogia, ardaoa eta okelea gura, sartu zan esaera zarretan be.

Eta kantu zarren artean ba dago «Ikusi nebanean» deitzen dana eta an be laga eban gaztaiñak bere ziritxoa:

Ikusi nebanean nik zure okotza.

Iruditu caten. maitea. gaztaiña ookotza



Sagardaua eta Txakoliña

Noiztik ete dator sagarra Euskalerrian?

1014 garren urteko agiri bat ba dago beintzat, ordurako sagarra ba gendula adierazten dauana.

Naparroa'ko Santxo Andiak, Leire'ko Monastegi bateri egindako eskintza: «ltxas ertzean, Hernani lurraldean, monastegi bat eskintzen dau-tsuet, bere lur, sagasti, arrain eta abar».

Urte batzuk geroago, eta gure inguruago, Bizkai'ko Lope jaunak San Millan de la Cogulla'ri, Astigarribiko monastegia eskiñi eutsan eta emen be «bere eliza, larrak, sagastiak eta arrantzarako portuak...» esaten da.

Gogoratzeko da Don Lope'ri egin eutsen kantatxoa:

Conde don Lope, el Vizcaino,
rico de manzanas,
pobre de pan y vino.

Normandie, Aubergne eta Picardiara, XIV garren gizaldian Bizkai'tik eroan zala sagarra esaten dau Labayru'k eta Normandi'tik Bretaña'ra aldatu zala.

(Labayru, *Historia de Bizcaya, Tomo I, 497* orr.).

Sagarra baiño geroagokoa dala esaten da matsa.

Ondarroa sortzeko, Marina D. Haro Andre andiak egin eban agi-rian, ez da sagarrik aitatuten, baiña maastiak bai.

«...e dó a los pobladores de Ondarroa dentro de estos términos sobre escriptos tierras e viñas...»

Agiri berbertan, lentuago, au esaten da: «...e si estos pobladores fallaren a ningund orne en su uerta e en su viña que faga daño, peche cinco sueldos para el dueño...»

Eta beste au be:

«...e por do que fallaren agoa para regar piezas, ó viñas, ó molinos, ó huertas, e que los tomen».

Danok dakigu gure arrantzale zarrak, Terranoba'ra joaten ziranean, ainbat sagardau upel eroaten zituela euren edaritzat.

Sagarduari buruz ez da barri askorik billatzen gure erriko liburuetan. Bear ba da erriak bere edaritzat artuta eukan, noiz nai erabilli eta lortzen eban edaritzat, eta erri barruko ondorentzat ikusten eban.

Ardurutzen ziran bai, erriak, sagardaua egiten zanean bere garbitasuna edo osotasuna zaintzen. Zigortu egiten ziran sagarduari ura sartzten eutsenak. Zigortu egiten ziran, baita be, Foruan ala agintzen zalako, zugaitzak eta maastiak iñaustea.

Zigor gogorra enken batez be matsondo, sagarrondo, gaztaiñondo eta intxaurrondotl kalte 'Ven eutsenak, bai eta jateko frutua emoten eben beste zugaitzenak be.

(*Bizkaiko* Forua, 15 garren Leg 3/1. 34 atala).


Ez dakigu zenbat txakolin artuko zan gure errian.

Bai erria, urterako bear eban txakoliña errian lagaten alegintzen zala. Eta txakoliña zaintzen arduratzen zala.

Txakoliñaren mesedean, kanpoko ardauei sarrera galerazoten eutsen, ala komeni zanetan, txakoliñari kalterik ez edo ta urteera emotearren.

Orra, 1659 urtean. Urria'ren 12'ko erabagi bat. Txakoliñaren uzta zaindu al izateko...» que desde aora no se haga operación de vino ni por mar ni por tierra, a menos que la villa de licencia de ello.

(Libro 1 de Decretos. Artxivo. Mun.)



Txakoliñaren zerga dala ta 1701, 1712, 1747. 1749. 1752, 1756,

1757 eta beste urtetako udal batzarretan ba dira eztabaidak.

Ostera, sagardauaren zergari buruz. 1756-1758 urtetan.

Urte batzutan. txakoliñen ikerketak egitean, uri barruan zenbat txakolin egoan zeaztasunak aurkitzen dira.

Orrela, 1708 urtean 1686 azunbre egozala esaten da.

1710	»	2.050
1711	»	2.595
1712	»	3.820
1713	»	4.311

Ardau klaretea saltzen laga al izateko, txakolindunak zin egin bear izaten eben eurak gertua amaituta eukela.

1785 urtean, erabagi oneik artu ziran: «...que no se traiga en tiempo alguno Chacolí de Mixoa en poca ni en mucha cantidad pena de que cualquiera que coxiere al introducir lo tenga para sí, pues se da por perdido para el Dueño y lo mismo si coxiere después de introducidos. Que durante se está de venta el Chacolí se venda Clarete solamente a aquellas personas que tengan certificado del médico Cirujano, de serles perjudicial el uso del chacolí, y que la vendedora sea ponerla a la satisfacción de la Justicia y Regimiento. Que también deberán procurar de no dar para persona que no tenga dicho certificado, que sea permitido a los del Regimiento el dar Pellejos de Clarete en tiempos de Misa de los Sres. Eclesiásticos y a los que tengan que dar Convite a las Compañías de las chalupas por aquellos muchachos que lleguen a obtener soldada entera y no a otro alguno, teniendo como deberá tener los Sres. Regidores bajo de su Ilabe quanto vino foráneo se vaya introduciendo, dando a los vendedores su pellejo para los enfermos según baia consumiéndose.

Que no pueda haber menos de dos tabernas de chacolí y siempre que no obiese más de una haga poner la otra, sea echando suertes o como mejor le pareciese. Que en los lances de haber queja de ser malo el chacolí que está de venta, se reconozca por la justicia si es de tan baja calidad como que no debe venderse en precio corriente, se observe ínterin se venda lo demás, tomando los de la X.º razón de estado en que dejen las tales barricas y que después de la buena calidad se vendan al precio que pusiera la X.º

(A.M. Libro de Decretos 1781-1789. 13-VIII-1785).

Geroago, urte berean. au billatzen da Abenduaren 4'ko udal batzarretan:

«... Que el vino foráneo que se introdujera en esta villa en tiempo de sierra ua a directamente a la Alhóndiga de ella, que se guarde en custodia y tengan la llave los Regidores. Que ningun particular pueda llevar pellejo alguno a su Casa so pena de perderlo y a más de dos ducados de multa. Que cualquiera particular que necesitare vino pida permiso al Alcalde y dichos Regidores y con su licencia lo lleve desde la Alhóndiga, sin que tenga facultad alguna de llevarlo sin este Requisito. Que dicho

vino que así se repartiere ha de ser tan solamente para el consumo de cada una de las casas y su familia, pero no para operario que trabaja en las labores de campo, ni oficiales que toman obras por su cuenta, quienes no podrán dar bajo la misma pena y multa vino clarete alguno, ni otro foráneo a sus jornaleras u oficiales, sino tan solamente el chacolí de la propia cosecha».

(A.M. Libro de Decretos 1781-1789. 4-VIII-1785).

Lengo gizaldian frantzetarrak atsegiñez artzen eben sagardaua. Ba daukaguz agergarri batzuk.

1815'ko Azilla'ren 12'an au irakurri giñei: «Domingo de Aguirre solicita 5.870 reales como valor de 10 barricas de sidra suministradas a las Tropas francesas en 1813.

(A.M. Libro de Decretos 1812-1827).

Aldi onetan txakoliñari buruzko jakingarri batzuk Eleizako liburuetatik atara giñeiz.

1818 urtean, Bizkai'ko Aldundiak ogei itaundun agiri bat bialdu eutsen Bizkai'ko Eleizei.

Eta agiri orreri Ondarroa'ko Parrokiak emoten eutsan erantzunean, abadeen eta beste zati batzuk kenduta, eleiz berberari jaokozan amarrenen irugarren zatiari buruz, eta txakolin kontuan, erantzun au emoten zan:

Urtea	Radak	Azunbreak	Kuartilloak
1813	16		
1814	5	4	1
1815	4	3	1
1816	0	0	0
1817	6	0	3

Ikusten danez, txakolin utsuneko urteak egon ziran,

Neurriei buruz, erantzunean azalpen au egiten da:

«Se previene que la rada de chacolí se compone de diez azumbres de diez y siete onzas el quartillo; que el precio corriente de cada rada es veinte reales y se advierte para mayor claridad que el azumbre de chacolí se compone de cinco quartillos de diez y siete onzas.

(Archivo Parroquial).

1839'n, erriko sisak erabagitean, ardauari azunbreko 28 maravedi ezarri eutsezan; kanpotik ekarten zan txakoliñari, bardin. Eta sagardauari, besteen erdi.

Geroago, gure gizaldirako, txakoliña galtzen igarten dogu gure inguruan eta sagardauari buruz, zoritxarrez, esan geinkena au da: Gure azken gerrate aurrean, oraindik gu jaiota gero be, upel askok urtetan ebela Ondarroa'tik, itxas-bidez, toki askotarako. Eta Bilbo bertan guk ikusten gendula toki ugaritan «Sidra de Ondarroa» kartela, Ondarroa eta inguruan egin eta emengo portu txikitik bialtzen zan edari maitagarri

onek, entzute berezi eta eskabide ziuorra eukalako toki askotan.

Ondarroa'ri eta inguruari mugatuta esan geinkena au da: Ogei ta zortzi tolare, sagardau egiteko toki, ba egozala gure erri ta inguruan. Tolare jaube lez agertzen ziranak, oneik dira:

Agirre, Antonio
Alkorta, Rafael
Amallobieta, Carlos
Arambarri, Antonio
Azpiazu, Gregorio
Beristain, Manuel
Churruca, Raimundo
Eizagirre, Jose D.
Gabilondo, Juan de Dios
Gorostidi, Domingo
Guenaga, Jose Tomas
Guenaga, Silverio
Ibaibarriaga, Domingo
Ituarte, Domingo

Juaristi, Antonio
Juaristi, José
Larrañaga, Feliciano
Lizarzaburu, Miguel
Markuerkiaga, Severo
Rementeria, Juan
Sainz, Paulino
Uriarte, Domingo
Uriarte, M.^a Ignacia
Urkizu, Doroteo
Urresti, Antonio
Urresti, Hilario
Urresti, Ignacio
Urresti, Juan.



Tolarak eukezan baserri etxeak oneik ziran:

Alliri barri; Alliri zar; Anakabe; Andiketxe; Antxikoa; Antzone;

Arriaga; Asterrikakua; Bastarretxe; Beaskoa; Eguren; Goitiz; Iburguen; Ikaitabarri; Iramategi; Kitarranekua; Konde Etxebarri; Patrokua; Ubilla; Urkixa Goiko; Zelaikua; Zezermendi.

Urteekaz sagarrak ugaritasuna lortu eban bere motetan. Eta gure erri eta inguruko sagastietan batzen ziran sagar motak oneik ziran:

Adan sagarra: Adarmengela; Akabazi; Aixerdi sagarra; Alemanixe; Allaluzi; Andoaíne; Asoilokoa; Balantzategi; Ballester; Baraiku; Bereza; Billafranka; Bost kantoi; Burgo sagarra: Diburtzio sagarra; Dornegixe; Dultze sagarra: Errege sagarra; Errero sagarra; Garau andixe; Garratza; Gaza; Gorri garratza; Gorri txikia; Ibarre sagarra; Ipurdí zabala; Ipurditxu; Lastur sagarra; Libra sagarra; Lomaixi; Madari sagarra; Moko bal-tza; Morillua; Panpandoka; Sagar mingotza; Sagar zuria; San Frantzis-kua; San Juan sagarra; San Pedro sagarra: Tirtirrixte; Txakala; Txernebi-llle; Txabillu; Txistu sagarra; Txori sagarra; Urdin sagarra; Urte betea; Urte bixa.

Sagardandegiak be ugari egon ziran gure errian. Ogei ta sei be eza-gutu genduzan.

Ainbeste sagar eta sagardandegi, gure zarrak, euren beartasun eta estutasunetan. ba ekien itxasotik etxeratuta gero aterpeak nun eukezan. Lagun artea, atsedena edo ta itxasoko barriak alkarrri kontatzea euretan egiten eben.

Tartetan onelako pregoiak be entzuten ekiezan:

Gogoz entzun
ta ez izan gorra.
gaur, esan bearrik ez nun,
sagardau superiorra.
Txori andiaz iru baso,
edo akaso
lau baso.

Eta noz-nai, baiña batez be sardiña denporetan, sagardautegiak be-tien bete, sardiña errien koipe eta usaiñetan, gure edari maitagarriari ur-tien urtetako goralbenak egiten eta barriztuten.

ONDARROA ETA MENDIAK

Gaur, euki be ez dauka gure erriak mendirik, eta esan lei lo gitxi galdu eragiten dautsela gure denporetako erri-agintariei mendi, zuaitz eta baso kontuak.

Alaz eta ezin orrela jardun antxiñako gure udal-gizonakaitik.

Mendiak buruauste asko sortu eutsezan ondarrutarrei.

Lenengotan, Berriatua eta Ondarroa, eleiz ate eta uri arteko mendi eta Iurraldeei buruzko eztabaida luze, garratz eta naigabetsuen ondorenez.

Jakiña da Ondarroa sortzean Arnalloganako mendi eta abar emon eutsazala uri sortzailleak gure erri oneri.

Beste mendi batzuk Berriatua eta Ondarroa'ren jaubetasuneko izan ziran, au da, bienak.

Gero banaketak eta abar, gaurko denporetako egoerara eldu arte.

Eta egurraren onurak.

Bear ba da mendiko emaitzei buruz, egurrei buruz, Ondarru eta Lekeitio bitartean egon zan auzia da ortazko zarrenetarikuena.

Estanislao Labayru'k bere «Historia General de Bizcaia» n esaten dabena gogoratu daigun:

«Hallándose Don Juan Nuñez en este su Señorío en 1338, se ventoló ante su Prestamero Lope Garcia de Salazar, uno de sus servidores más fieles, el pleito que sostenían los de Lequeitio y Ondarroa entre sí

Los de Ondarroa pedían que sus vecinos los de Lequeitio pagasen un pecho por toda madera y mercancía que cargasen en su puerto o en la rentería de Amalio o cualquier lugar de su jurisdicción marítima, y los de Lequeitio replicaban que nunca habían pagado ese tributo, ni nunca se lo habían exigido hasta entonces por cargar la madera en Ondarroa y traer a su villa en bajel.

Para darse en el asunto juicio acertado el prestamero Lope Garcia de Salazar cometi6 a los alcaldes de Bizcaya por don Juan Nuñez y doña María, que estudiasen el litigio y lo fallasen.

Los alcaldes nombrados ad hoc fueron Rodrigo Adan (Rodrigo Alba segun Coscojales), Iñigo Perez de Lezama y Rui Martin de Albiz. los cuales en unión de hombres buenos hidalgos de ambas villas que tuviesen noticia de esta litis y de lo acostumbrado en ellas, sentenciaron que «el concejo de Ondarroa ni otro alguno demandase a ningun vecino ni morador de Lequeitio o de Amallo por madera que carguen ni compren por cosa ninguna que no sea de justa ningun tributo, salvo si llevan o cargasen para revender, sino para casa, su casa o su nao, su pinaza, su viña o seto».

Y a pedimento de los de Lequeitio, el prestamero Salazar les otorg6 carta sellada de este fallo.

Recurrieron luego los lequeitanos en conformación de la carta al

Señor de Bizcaya que se hallaba en Durango, y en esta villa don Juan Nuñez les concedió lo que pedían el 30 de Julio».

(Labayru, *H. G. de Bizcaya, II, 340 orrialdea*).

Aldi aretan, oituzazko eben gure agintariak ingurutako mendiak noiz-nai ikustea.

Orrelako agiriak billatzea erraza da.

Bat:

1625. Arantzadi'ko Madalena inguruko mendiak ikustera joan ziran erriaren izenean zazpi gizon, saltzeko edo probetxuko ete egozan ikustera. Ikustaldi au amasei errial kostatu jakon erriari.

(*Libro de cuentas 1614-1633 Udal Artxiboa*).

Eta gure agintariak ez ziran ixil eta geldi geratzen mendietan bear ez zan zerbait egiten ebenean, edo erri baimen barik bakoitzaren ondasunerako zuaitz mosketa edo ta egur ataratzek egiten ziranean.

Irakurri:

1650. Irailla'ren 4'ko udal batzarra:

«Mintegieta izeneko erri-mendian arbolak ikatzetarako ebagi ditue-nei auzia zabaltzea.

(*Libro de Decretos 1, 12 orrialdea*).

Edo beste au urte bereko Abenduaren 4'ko batzarrean:

Arantzibia'ko saroearen gibelean dagon Mindegietia mendian, ezelako baimen eta eskubide barik, norbaitzuk ikatza egiteko zuaitz asko atara eta ebagi dituela, erriari kalte ugari eragiñez...

(*Libro de Decretos, 1.*).

Batzutan erri-mendiak kaleko zorrak ordaindu edo kittututeko balio izaten eben, edo ta ortarako ataraten ziran enkantetara. Erabagi au arrera begira egiña egoan:

1664. Azilla'ren 30'ko batzarreko erabagi bat: Oraingo alkateari, urrengo urtean izango danari eta Juan Andonaegi'ri udal baimena emotea basoak ikazgiñarako ebagiteko gertu dagozanean, erri-enkanterako deia egin al izateko, eurekin erriko zorrak ordaintzeko.

Eta alkateak baimen orregaz baliotu ziran. Ikus, illak geroago. urte barrian sartuta laster, ziurretik alkate barriak, (1664'n Aparizio Asterrika zan alkate eta 1665 urtean Miguel Brebilla) zelan artu eban baimen ori.

1665 urteko Urtarrilla'ren 18'ko batzarrean billatzen dogu ortazko agiri ziuerra:

...Erriko zorrak ordaindu al izateko, erri mendietan atara leikezan egur kargen errematak gertutea.

(*Libro 1 de Decretos*).

Urte berean, barrero egur kargak saltzeko premiña eztabaidatzen da Udal batzarrean. Eta orduan gure erriak zer ikusi eukan mendi oneik izentatzean dira batzar orretan:

Goikoa,

Oza,
Mintegieta,
Mintikaz (Basterretzeko soloaren egalean)
Ixuzkidi, Bidegorritik asi eta Olabe goraiño,
Urkiagabaso, Mandoban errekarerarte,
Arrando,
Mikitoaga, Iramategi eta Baranigo bitarteko etxetxurarte,
Lakakoaga eta Mokaro,
Isolagatxe,
Allenda zarra,
Pertika eta Arantzadiko ermitaren arteko Igoretxe.

Erriak dirua zor eutsan Martin Andonaegi kapitanari eta bere ondorengoei eta kittutu nai eban. Mendiak saldu eta saltze orretatik ataratako dirua orretarako bakarrik nai eban, eta geratzen zanagaz Ospitalari 45 dukat emon eta parrokiari 35 dukat ordaindu. Ori zan batzarreko asmoa.

(Libro 1, Martiaren 25'ko batzarra. 1665).

Ba dakigu zeintzuk nai izan eben egur ori erostea be eta zelan jokatu eta ordaindu eben.

Urte bereko Ekainilla'ko 7'an egindako batzarrean esaten da, Pedro Larruskain eta Iramategi'k, egur karga bakoitza errial bi eta iru kuartillo-tan gaindu ebala.

(Libro 1, 44-45 orrialdeak).

Andik laster beste buruauste bat sortzen da.

Erriko zubia, zubi bakarra, arrakalatuta egoan. Erriari zor eragiten ebillan, berak emoten ebana baiño eskatzen ebana urtetik urtera geiago zala.

Danok dakigu gure zubizarra, garai aretan, egurrezkoa zala, eta zabaltekoa zala, txalopak ibaian gora joan bear ebenetan eurentzako tokia eta bidea emoteko.

Orrek be kezkatuten zitun gure agintari zarrak. Zubia konpondu nai eta zelan konpondu ez. Origaitik mendietara begira jarten ziran erri-agintariak eta basoetako emaitzez konponduten zituen erriko bear izanak. Oraingotan, 1667 ko Otsailla'ren 2'eko batzarrean au erabagi zan: «Aprovechamiento del burullo y Rama del Monte enírente de la Iglesia matriz, para reparar el puente».

(Libro 1 de Decretos).

Urte batzuk geroago, gure errian esaten dan esakera gogoratuaz, emon eta kendu, zapatia kendu, gure asabak konturatu ziran mendiak emon al izateko, euretan zerbait sartu bear zala.

Eta orrela, 1671'ko Azilla'ren 26'ko udal batzarrean erabagi eben, erri-mendietan aritzak sartzea premiñazko zala. Eta aritz batzuk Intxaurtietia mendian sartu ziran, irureun eta larogei inguru. Mendi ori Berri-

tua'ko lurretan egonarren, Ondarroa'ren jaubetasuneko zan.

Pedro Mugartegi izan zan aritz orreik sartu zituna, eta orde, balio barik geratuta egozan arbolen egurra eskatu eban.

Baiña zuaitz barriak sartze onek ba dauka beste oroitza bat, Zorrak kittutu eziñik ebillan erriak, nundik dirua atara zuaitz barriak euretan sartzeko?

Onok ba dauka erantzun bat.

Ondarrugaz aztu ezinda Ameriketean ba ebillan gizon bat. Eren-min edo'tertziariak batuta. 1664 urtean. Eta arek, zuaitz barriak erriko mendietan sartzeko 500 dukat laga zitun bere azken naian. Domingo Basteiretxea Gorozika zan bere izena, eta Ameriketako Mérida'n il zan.

Origaitik gizon aren diruak eldu zirala eta aren kontura egin zan zuaitz sartze ori.



ZUBI ZAR BARRIA

1689 urteko Uztailla'ren'24'an, Udal batzar garratza egin zan.

Batzar larri eta kezkatia.

Zubia, egurrezko zubia zan kezkalari eta gai nagusi.

Batetik egurrezkoa eta bestetik bear zitun konponketak egiteko ao zabalik egoan. Erriak dirurik ez. Barriri mendietara jo bear, asarre ta abar auzorik urrena zalako. Eta erriak erabagi sakona artu eban oraingotan. Beste erremediorik ez eukan zubi barria egitea baiño. Zelako? Egurrezkoa, barriri urte gitxiren barruan ezin konponduta ibilteko? Ze-

tarako mendiak, erritik urrunean, eta erri barruan premiñaz beteta, naita ezko eginbearrei eutsi eziñez ibili?

Gauzak orrela, erriak mendiak trukatzea pentsatu eban zubi ordez.

Mendiak ondare bat zitun, baiña goietan egozan, uri burutik urrun. Zubia kale barruan bertan bear eben. Egunero ibili eta lan egin bear zan tokian.

Kontuan euki Errenderi'ko zubia kenduta. errian *ez* egoala beste zubitirik.

Txalopetan ibili ezik, Elexaurreko zati guztia, bai itxas bizitzarako eta bai solo ta basoetarako, ibaiak etenda geratzen zan.

Esan dan lez, erriak ba eukazan oraindik bere jaubetasuneko mendiak. Or eukan Madalena'ko Kofradian Igorotxo mendia, or Lekoia gainean Gebauretxueta mendia be, eta Asterrika auzoan Eguren aldian besteren bat. Ain zuzen danok Berriatuaren lurraldean egozan.

Origaitik Igorotx eta Intxaurtxueta saltzeko erabagia artu eta orretarako baimena eskatu zan, ataraten zan diruagaz arrizko zubi bat jaso al izateko.

Onela diño Udaleko Libro I dalakoan, 121 orrialdean:

«... lo primero quanto ay en la jurisdicción de esta villa una puente en la ría y canal de ella sitio y parte pasajera desde la dicha villa a la otra parte e a las partes de la noble provincia de Guipuzcoa y otras. La qual ruina por ser de madera los mas de los años a causa de las grandes abenidos y llebas el agua que resultan considerables gastos y daños. Y respeto de que la dicha villa no se aliaba con medios por no tener propios y rentas sino tierras bacias para poderla labrar y hacerla de piedra viera costumbre (como es en Castilla) en hacer repartimentos, sino que qualquiera villa o anteiglesia a su costa en su jurisdicción, es de su obligación el hacer qualesquiera fábricas y repasos de puentes y calzadas y segun fuero de este Señorío y estilo de otras provincias vecinas se obserba ass y porque la villa no tenía de que poderse valer más que de tales tierras, montes que son Igorocho que es la Cofradía de Santa Maria Magdalena, otro en Guebaurecheta sobre la casa de Lecoya, cofradia señor san Vicente y otro hacia la casa y casería de Eguiguren, cofradia señor San Lorenzo de Asterrica, todos ellos en jurisdicción de la anteiglesia de Berriatua, quedándole como se queda la suficiente para el pasto de ganados y lo demás que necesita aunque tales tierras se enajenen y las benda para de su procedido poder hacer la dicha puente que de otra suerte es imposible poderlo conseguí,- una fábrica que tan útil y necesario le es a la villa y sus vecinos y se acaben de una vez los gastos que resultan considerables.

Y además de lo referido de los aguaduchos combaten la puente los fluxos y refluxos cuando se altera la mar y es precisa la puente por no ser pasajera porque sirve la villa de la agua y fuente que está a la otra parte del rio y es necesaria porque esta otra banda en que está la villa

no ay fuente ninguna ni agua necesaria y en particular cuando no llueve, en cuya consideración y de otros motivos que se presentaron: Piden y suplican al F?ey Nuestro Señor que Dios guarde le conceda la facultad para poder bender y enajenar las dichas tierras para el efecto requerido en consideración de los motivos tan justos y utilidad tan conocida. Lo cual decretaron se haga con toda brevedad y para el efecto haga todas las diligencias necesarias dicho Sr. Dn. Juan de Andonaegui y Bidarte, a quien se encarga todo y corra por sus manos por ser persona de toda fe y crédito y de quien se tiene toda la confianza».



GIZALDI BARRIAN

XVII garren gizaldia laga eta goazen XVIII garrenera.

Soil-soil agertuko doguz ainbat erabagi eta jokabide. Irakurriaz batera konturatzen da bat, gure zarrak, mendiak buruan zituela eta euren ezintasunaren menpean be, alegiñik bizienak egiten zituela mendiak zaindu, arboladiak ugaritu eta mendietako onurak erriaren mesedean edo erriarren premiñetan al zan zeatz eta zuzenen zabaltzeko.

Gure zarren erabagietatik igarten dan lez, mendiak eta arboladiak erriaren mesederako ziran, eta batez be langille zan berberaren etxe nai txalopak egiteko erriak emoten zitun lagungarri lez ziran. Ez orraitik txalopa nai etxe egillea irugarren bat ba zan, au da, gintza lez ba eukan zeregin ori, eta mendietatik ataraten zan gaia merkataritza bide ba erabillan.

Orra gitxi ezagutzen dan erri jokabide bat. Bizibidea billatzeko erri laguntza, esango genduke, beti be erri mesedea zalakoan.

Ara, ba, erreskadan, ardura eta kezka erakusten daben agergarriak:

1705. Maiatzak 12.

Erriaren mendiak txarto dagozala eta eurak ikustera ainbat lasterren joatea. (Lukas Olazarra, alkate).

(A.M. *Libro 2, 32-33 orrialdetan*).

1705. Apirilla.

Francisco Urriola sindikoak, erriaren izenean auzia sartzen dau martian Ugorotx ariztegia erre ebenen aurka. Ugorotx mendia Berriatua'ko eleiz atean egoan. Ikusi ebenen agerpideak emoten dira. Ara, Aranzadi, Pertika eta Egi goiko baserrien aipamena egiten da.

(A.M. *Libro 2*).

1706. Urtarrilla'k 1.

Juan Otxoa Brevilla alkatea, Jose Bustinzuria ziñegotzia, Francisco Aldaola, ospitaleko maiordomua eta Pedro Albinagorta, Santa Kutz ermitako maiordomu-laguntzaillea aukeratu ziran erriko mendietako apeoa egiteko.

(A.M. *Libro 2*).

1710. Abendua'k 25.

Arteta baserriko etxe jaube zan lñazio Asterrika'k eskabide bat egiten dau, bere errenteru danak Ikaietako gaztañadian solo bat zabaldu daualako, ordez truke bat agintzen.

-Berriatuarra dan Antonio Kategi'ren eskintza onartzen da, landaretegi barri bat ipinteko.

-Zezermendi eta Ikaietako soloak mugatzea eta euren errenta erabagitea euretako jaube diran Domingo Juaristi eta Antonio Laka'gaz batean.

(*A.M. Libro 2, 51-52 orrialdetan*).

1713. Bagilla (Ekaina) 18.

Udal batzarrean zorrak ordaintzeko erabagiak artzen dira. orretarako mendi zati batzuk salduta.

-Juan Andonaegi'ri, 100 dukat balio ditun Arkotxa ariztiaren zati bat emotea.

-Jose Bustizuria'ri, Goitiburu mendiaren zati bat, Igorotx mendian ipinitako 625 aritz-landare eta Etxatxoan ipinitako 113 gaztain landare ordez.

-Ikatza baserriko Pedro Iturriaga'ri, bere etxe aurreko lurralde zati bat emotea, Arriagabaso ariztiaren ordez.

(*A.M. Libro 2, 60 orrialdean*).

1725. Abendua'k 25.

Erri mendietatik ataraten dan egurra, Udalak bere aurka daukazan dirutzak kittutzeko erabiltea.

(*A.M. Libro 2, 87 orr.*).

1737. Abendua'k 25.

Sindikoari eskubide osoa emotea. erriko mendietan kalteak egiten dituenen aurka auzi bidez jokatzeko.

(*A.M. Libro 2, 127 orr.*).

1.745. Abendua'k 5.

Ainbat ariñen mendi eta basoak ikustera joatea, ortarako gertuten diranei eguneko 6 erreal eskiñiz.

(*A.M. Libro 2, 150 orr.*).

1746. Epailla'k 27.

Azken suak mendietan egin dituen kalteak neurtzeko Domingo Joaristi izentatzea.

1750. Irailla'k 21.

Maastialt zaintzeko zaindari bi aukeratzea, egunean iru errial eta erdiko alogeraz.

(*Libro 6 de Decretos*).

1751. Abendua'k 15.

Juan de isla'ri patatxe eta íragata txikiak egiteko bear zitun aritzak emotea, baiña egur ebagiteak mendi sarratuetan egin barik, eta bear zan ordaiña bitarteko.

(*A.M. Libro 2, 194 orr.*).

1751. Abendua'k 25.

Berrituarra dan Agustin Urkiaga'ri, bere eskaria ontzat artuz, Alda-bide'n landara toki bat ipinteko lur zatia emotea. Ordez diru edo landa-

rak emotera beartuaz.

(A.M. *Libro 2, 196 orr.*).

1752. Otsaillak 2

Mendiak ebagiten diranean. erriko begiraleak ikusi dagiela ikazgi-ñak zelan egin daben lan ori, igazko kalterik egon ez dedin. Eta begirale orreik izan daitezala aritz legorrak nun dagozan erabagi eta zelako adarrak ebagi bear diran. Eta begiraleak bana-banaka ekarri dagiela ert`ira orretarako zerrenda.

(A.M. *Libro 2*).

1753. Urtarrilla'k 14.

Ikatzetarako egurrak ebagitean, lenengo zuaitz legorrak ebagiteko. eta ebagiten diran enborrak, bilin-bolonka mendian bera erabili barik, toki berbertain egur biurtzeko, lurretan kalterik ez egiteko.

(A.M. *Libro 2*).

-Ondartzako soloen erremata eukan Bautista Iramategi'n -irizpidea zuzentzat artea. Ondartza orretako soloak barazkiak artu nai zituenei banatzea ondo eritxon, ez orde z garia sartu nai ebenai.

-Erritar batzuk etxerako egurra ebagiteko baimena eskatzen ebenean, egun ber-bertan egitea ortarako egokia zan tokiaren ikertaldi eta agindua, ebagiteak ziur egin al izateko.

-Jose Lariz berriatuarrari erri bien mendietan ametzak sartzeko baimena emotea, baiña erdiak beintzat Elexabarria tokian sartzekotan.

1756. Epailla'k 22.

Elexaurreko mendi utsak beteteko, landaretegi bat ipintea komeni zala, erositako landarekaz nekez eta karu egiten ziralako.

(A.M. *Libro 6 de Decretos*).

1757. Abendua'k 26.

Olabe'ko jaunari eskatzea, gaitu bat aukeratzeko ingurutako mendien mugak aztertzeke, Domingo Juaristi mendi-zaiñaren ustez, jaun ori Olabe'ko saroe, inguruko erri baso eta Zaldu'ko ariztikoko arbolekin baliatzen zan erriaren kaltez.

(A.M. *Libro 2, 262 orr.*).

1761. Irailla'k 27.

Migel Agirre eta Jose Etxaburu aukeratzea maasti zaindari, egunean bost errialeko alogeragaz.

(*Libro 2, 293 orr.*).

1761. Otsaillak 22.

Erriko basoetan eta jaubetasunetan. erriarrak sukaldetarako edo saltzeko zugatzak ebagitea galerazotea, ortarako begirale lez aututako Juan Bta. Iramategi'ren baimen barik. Baimen barik arrapatzen dana

kartzelan sartu eta diru zigorra ipintea. Irugarrenez jausten danari erritik eta ingurutik kanpora bialtzea.

1762. Urtarrilla'k 6.

Erriko mendirik andiena dan ltxuskidi'k Akilla'ko landarategi baten antzeko premiña daukala. eta Sindikoari eta mendi zaiñari eskatzea, eurrak egokien deritxoen toki baten ortarako itxitura egin eta urtean landarak sartzeko aukera billatzea.

(Libro 6 de Decretos).

1763. Epailla'k 3.

Madalena auzoan daukan Iandarategia hipotekatuta daukala jakinda. Pedro Alegria'k landarategi orretan zelako landarak daukazan ikus-tea erabagiten da. Eta aurrerantzerako jakin eraztea errikoa dan menditik ez daiala ez enborrik ez egurrik banatu eta gitxiago erbestekoei, erriari jakin eragin barik.

(Libro 6 de Decretos).

1781. Bagilla'k 3.

-Isidro Urkiaga'ren eskabidea, Migel Sustaeta'ren izenez, asita daukan etxerako zazpi arbola eskatzen: iru goiak atarateko eta lau kuartoiak atarateko.

J.B. Etxebarria'ren eskabidea, amar arbola etxea jasoteko eta beste amar sardiñatarako txalopa egiteko.

-Eskribaduaren eskabidea, 400 kintaleko txalupa bat egiteko asmua daukala ta ogei arbola eskatzen. Bere esanetan txalupa bat gitxitu egin jakon, eta barri baten premiña igarten da errian.

-Domingo Zuazaga'k arbola bat bear dau eta Santi Etxebarriak bi edo geiago, txalupa egiteko.

Guztien eskariak ontzat artu ziran.

(Libro... de Decretos. 1781 · 1789).

1782. Dagonilla (Abustua) 11.

Alkateak jakin erazten dau bere etxea konpontzeko amabi arbola-ren premiña daukala, solibak egiteko erakuak, baiña ordainduta nai ditula.

(lb.).

1783. Urtarrilla'k 2.

Bengoetxea eta Irumendi berriatuarrak sei milla zuaitz landare sartzeko gertu dagozala ikusita, sei millatik zortzi millara sartzeko agintzen da.

(lb.)

1784. Otsailla'k 2

J. Etxebarria'k agertzen dau txalupa bat egiteko 50 arbola oker bear

dauzala, eta Udalak erabagi eban aurten ikatzetarako ebagitea egin bear dala, ta lenengo gai diran okerrak aldebanatzeko, eta geiago bear izan eskero beste toki batetik atarateko.

(lb.).

1784. Epailla'k 3.

Antonio Launeta'k jakin eragiten dau txalupa bat egiteko 24 egur okergarri bear dauzala eta origaitik. ordainduta, eurak emoteko.

(lb.).

1784. Abendua'k 19.

Sartutako zuaitz landareen kontua emoten da. Etxea dalakoan 6.692 zenbatu dira, ondo atxurtuak. Migel Antxustegi'renean, 3.682; Pedro Ajarrista-renean 750 ondo sartuak eta 896 oker sartuak.

(lb.).

1785. Urtarilla'k 14.

Alkateak, Zubiaurreko etxea konpontzeko, 20 arbolen eskabidea egiten dau.

Migel Antxustegi'k, seis gaztaiña.

Elexaurreko gaztañadiak zazpi urte daukazala eta mesedea egingo dautsela bertatik atarateak ikusita, zuaitz andiei kalterik egin barik ataratea erabagiten da, premiñazko diranak zutik lagata.

(lb.).

1785. Urria'k 9.

Eskribaduaeren eskabidea, ontzi bat egiteko 26 zuaitz okergarri eskatzen.

(lb.).

1786. 25 - VI.

Bengoetxea'ren eskabidea, itxitura bat egiteko bost edo sei aritz-motxena.

1786. Azilla'k 26

Meatza erabilteko gabarra bat egiteko, 18 zuaitz okergaien eskabidea. Amar emotea erabagiten da.

(lb.).

1787. Maiatza'k 20.

Ana Etxebarria'ren eskabidea, amabi aritz bear txalupa bat egiteko.

Juan Bakeriza'k, Estakona ondoko etxea konpontzeko, lau aritz eta lau gaztain.

Ana Maria'ri eskatutako amabi aritzak emotea erabagiten da, udaleko lurretan billatzen ba dira.

Baiña...

Onetan Ostolaza'k esaten dau Ana Etxebarria'ri, aurrerako eskabi-dean amasei edo amazapi aritz eskiñi jakozala eta ogetazazpi ebagi era-

gin zitula. Antxustegi'k geituten dau ogeitazazpi ezetz, ogeita amar izan zirala ebagiak. Berari ikustera deitu eutsenean, ebagita, landuta eta gertuta egozala. Baiña orretan Etxebarria'k ez eukala errurik, txalupa egin bear eutsan Urriolabeitia ontzigilleak baiño.

Ori ikusita, alkateak esaten dau, ori agindu ebanari lau pesotako isuna (multa) ezarten eutsala eta gaiñera ebagitako guztien balio zuzena ordaintzera beartuten eballa.

(Ib.).

1787. Uztailla'k 1.

Meltxor Arbestain errementariari amabi burkada emotea, burkada bakoitza 16 errealetan.

(Ib.).

1788. Otsailla'k 2.

Antxustegi'k daukan landaretegian, zuaitz bizientzako tokia lagatera beartuta dagola kontuan eukita, uztu ala erriaren konturako landaretegi bat toki berbertan sortzea erabagiten da.

Onetan Gabriel Urresti'k esaten dau Goikokaleko etxearen barrizta-pena egiteko premiña daukala, eta amasei aritz bear dauzala.

Ori ikusita, erriak ba dakian lez, etxe ori neurketa araberan egilleari ordaintzekotan egiteko dala ta aritzak emotea ez dala Urresti'ren mese-dean esaten da, etxe-gintzako ardura daukanaren mesedean baiño. Orrela eskabidea ez da onartzen.

Eta aurrerantzean etxe barri bat egiteko edo zarra konpontzeko, edo ta txalupa ren bat egiteko, nai ta ainbesteko baten egiteko izan, erriaren konturako egurrik ez emotea erabagiten da, bai ordez egiñaren alegiñean eurentzako egitera doazenei.

(Libro *Decretos 1781 · 1789*).

1792. Bagilla'k (Ekaina'k) 20

Kamiñaga eta ibaia bitartean, Juan Jose Uribe'k iategi bat solo biur-tu dauala ta jaubetasunari buruzko eztabaidak sortzen dira. Itxuraz, ibaiaren be aldean, urak mare-goratan bustiten dituenak, lenengotik erabilten datozenak, eurentzakotzat euki leikiez iatza orreik.

(Libro *Decretos 1792 · 1796*).

Ainbat orrelako billatu leikez gizaldi onetan.

XIX GARREN GIZALDIAN

Emeretzi garren gizaldian, gure erriko ardurak garratzagoak dira. Gizaldi orretako gerrak bitarteko.

Gero bertan edo inguruan ebiltzan gudarosteen eskabideak, etenba-ko gogortada eta aginduak, aidean erabili zituen gure erriko arduradunak.

Gizaldia aurrerago eta gerratetako zor eta hipotekak ezin jasota ikusten da erria.

Eta politikak nastauta.

Alaz eta, gizaldiaren asieran beintzat. eta geroago be, fitxa batzuk jaso leikez:

1806 - 26-V.

Erri basoetan gaztain arbolak ebagi ditueni, bakoitzeko zortzi errealeko zigorra ipintea.

(A.M. *Libro 5*).

1806. 2-XI.

Erriko etxe bizitza bakoitzari iru ikatz karga emotea erabagiten da, ipinita dagon salneurrian, Donosti'ra edo beste nunbaitera barriro saltzen dabenei ezik.

-Erri mendietatik zedroak ebagitea eta ta erabagiteko salneurrietan Obekola eta Andonegi'ko burdiñoletara saltzea. Eta eurak nai ezik, erosi nai dauanari emotea.

(A.M. *Libro 5*).

1806. 4-XII.

Udal erabagiak:

Juan Bta. Sustaeta'ri arta bat saltzea Anakabe inguruan, bere balioan.

-Gelaloro alkateari eta J.J. Aristi'ri 6 aritz motx emotea euren balioan.

-F. Bedialauneta'ri, alkate ordeari, 4 gaztain apor emotea euren balioan,

-Santiago Abaroa'ri, sindikoari, 3 gaztain saltzea euren balioan.

1806. 29-XII.

A. Garramiola'k erriko baimen barik bertako mendietan zuaitzak ebagiteagaitik bere aurka zelan jokatu leiken lege-gizonen eritzia eskatzea.

1807. 30-III

Udal batzarreko erabagien artean:

Jose Mugartegi ziñegotziari, 6 gaztain-mox emotea, euren balioan.

Pablo Zabala'ri beste sei, euren balioan.

Jose L. Egiuren'eri, Eleixaurren dagon arbola txiki bat. bere txalupako killa egiteko.

Eta Arrasate sindikoari, Eleixaurre ez dan beste mendien batetik, 3 arbola.

1807. 7-VI.

J.A. Aranzamendi'ri. 4 aritz emotea, euren balioan.

J.A. Bengoetxea'ri. 4 aritz, bardin.

F. Gelaloro'ri. 6 enbor motx, txalupa bat egiteko.

1807. 1-VI11.

Juan D. Gandiaga sindikoari, 20 aritz motx, euren balioan.

1807. 16-VIII.

M.A. Goitia'ri, Orlingoa eta Ostolaza etheen artean jasoten diardun etxerako eskatzen dauana, 300 errial ordainduta.

A. Garramiola'ri. 10 gaztain eta 10 aritz, euren baliotan.

1809. 9-1.

Landaretegiak daukazan Andres Antxustegi'gaz tratu bat egiten da. Gertu dago lau urteren buruan 5.500 aritz landare eta 500 gaztaiña sartzeko, urte onetatik asita, urte onetan 2.000 sartuz, Peñafloidako kondeak ordaintzen dautsan neurrian. Eta urteko milla erreale vellon ordainduz joatekotan. Eta bere eskintza ondo artua izan da.

1809. 5-II

Zarate ziñegotziari zortzi aritz emotea, ordainduta, Elexaurre'tik izan ezik.

I. Aristi'ri beste zortzi.

Urriolabeitia'ri beste sei.

(*Libro 5 Decretos. 1805-1812*).

1815 - 20-VIII

Iñok ez dagiala mendirik ebagi, arduradunak aurrez Udaletxean agertu barik.

1820. 11-VI.

Peñafloida'ko kondearen ordezkari dan Antonio Olearen idazkia irakurten da. Bertan esaten danez, kontribusioen ordezkariak Mintegietako saroean kondeak daukan lurraldearen alboan eta Pertika inguruan udalak emonda daukan mendian esidura egin nai dau eta Udalak bere gogo oneko gizonak bertara bialtzea nai dau, zeregin ori beteteko,

Bein urte oneik ezkerero, udalen makaltasuna igarten da. Alde bate-tik ori, baiña bestetik jendearen lurekaz jaubetzeko gogo.

Orrela, 1826'tik 1838 bitarteko goraberak agertzen diran «Libro n.º 7 de Decretos»en onelako kontuak billatzen doguz:

1826. 25-IV.

Andres Antxustegi'ren idazkia, Arragueta iatza baten ordezkari, bederatzireun eta amalau errial eta ogei ta amabi marabedi eskintzen.

1832. 16-XII.

Domingo Erkiaga'ren eskabidea, Latrozulueta mendia saltzeko eskatzen.

1833. 4-1.

Lekeitio'ko Caietano Ojarigoiti'ren eskabidea. salneurri egoki baten Ergoitz aurreko mendia, Errenderi'ko aurea eta Txindurri mendia erosteko gertu dagola esaten.

1833.

Urte onetako Urtarilla'ren 25, 29 eta Otsaillaren San, Garramiola'k erositako mendiei buruzko eztabaida gogorak erabilten dira.

1843'ko Azilla'n, alkateak mendi zaindari biei deitu (Jose Maria Azpiazu zan bat eta Jose Maria Osa bestea) eta zin (juramentu) eragin eutsen baldintza guztiak zeatz beteko zituela. Eta baldintza orreik, banan banan, euskeraz gogoratu eutsezan.

Urrengo batzar baten batzuk asarre agertu ziran, esanez, mendi zaindariak udalaren kontuko izatea ondo egoala, baiña maasti zaindaria maastietan zer ikusi eukenak ordaindu bear ebela.

Urte oneitan erria konturatzen asi zan, gure lurraldean egon ziran gerrateak erriari eukantxoia jaten asi zirala.

Esana dogu gerraen ondorenez erriak erantzun bear asko artu zitula. askotan berak jaso al ez zitun zergak estutasun eta premiñaz dirudunen gain lagata.

Urteak igaro eta oneik euren dirutzak mendietan edo lurretan kittutu nai izan zituen.

Ortaz dator 1843'ko Azilla'ren lZan ospatutako batzarreko agiria. Onela diño, erderaz:

«...en segundo lugar *se habla de los excesos que resultan en los montes enajenados por esta villa en ntegro de contribuciones satisfechas en la guerra de la independencia y lo mismo por los anticipos hechos en la misma época.*

Se acordó continuar midiendo terrenos, para que se vea si hay excesos o no en las mediciones.

...en tercer lugar hizo presente dicho Ituarte que en el año de mil ochocientos treinta y dos midió a costa de la villa varios terrenos concejiles a petición de particulares de esta villa y fuera de ella. y entre ellos don Cayetano de Ojangoiti en el término de Pertika-azpi hacia la parte de Chindurri con ánimo de causar su remate, más hab endole mostrado deseos de aquel terreno con Antonio de Garramiola, por no hacerle perjuicio omitió hacer remate aunque se puso a una con otros terrenos y también Garramiola. Es decir, que por entonces quedó sin efectos tanto para el uno como para el otro. Que Garramiola ha seguido usufructuando dicho monte hasta el 31 de Diciembre último, en que a su petición de sacar a remate previa tasación de don Cándido J. de Lezea perito nombrado por la villa con condición de pagar el importe en remate ciento veinte reales de cada año, descontando seiscientos noventa y seis

reales a la suma principal, haber que le resultó a Garramiola en los terrenos adjudicados en 1824, cuya tiene duplicado y cobrada por dos veces en atención a que en la liquidación general que hizo con la Comisión de la villa en 1829 y pruebe tiene embevida. Por consiguiente no puede pasar en silencio los dos avisos de duplicar una partida por dos veces y aprovecharse de los usufructos del monte sin justo título en tantos años, añadiendo que en dicho año de 1832 el síndico J.J. Arambarri por encargo del Ayuntamiento pasó al citado término en disposición deliberada de enagenar, más habiendo uno de los inquilinos de Garramiola indicado que aquel monte era de su amo, volvió sin practicar la medición a poner en conocimiento el Ayuntamiento tomó las oportunas disposiciones de averiguar si realmente Garramiola tenía título de pertenencia del expresado monte y recibió de ellas lo que estaba usufructuando sin remate ni Escritura».

Geroago, 1843 urtean Arriaga baserriaren aurrean Juan de Dios Usabiaga'k eukan lurraldea eztabaidatu zan eta beste gaztañadi bat.

1843'ko Abenduaren 28'ko batzarrean esan zan abogaduak esaten ebela Ariaga aurreko lurraldeari buruz gora jo ezker, zerbait lortu eikeala.

Eta gero, oraindik be, Garramiola'ren mendiari buruz ekin zan eta egun orretako agirian au esaten da:

«Enseguida sobre el terreno de Garramiola hablado en Noviembre. se dice que no tiene más exceso Garramiola que sesenta y tres y cuarta posturas en lo comprado, pues el enagenado por esta villa a principio de este año fue terreno del mismo Garramiola por un error o equivocación que padeció en la medición, es decir, que además de dicho exceso hay otra porción de terreno propio de la villa poblado en parte y en parte despoblado, el cual si Garramiola quiere tomar a plazos, puede poner en ejecución el Ayuntamiento la venta, igual que también otro terreno despoblado sobre Goitiburu.

(Libro 8 de Decretos 1838 a 1853).

Orrela, geldiro geldiro, gure erria mendien jaubetasuna galduaz, mendi bizitza bastertzen joan zan.

Geroago, 1858 urtean iru lau bidar billatzen da Mokaro aldeko txata bat saltzeari buruz Manuel Ireta'k egindako eskabidea, eta eskabide ori ontzat artzea erabagi zan urte bereko Dagonilla'ko bigarren eguneko batzarrean.

Ikusten danez. gizaldi onetako gerrak narru gorrian laga eben gure erria, azken baten zorrak ordaintzeko eukazan ondasun guztiak saldu-premiñan aurkitu zalako.

Alaz eta ezin ukatu, erria sortu zanetik bosteun urte luzetan, Ondarroa'k, sortzeko dote lez artu zitun mendiak zaintzen kezka eta ardurat-su jokatu ebanik, batzutan eztabaidatan, bestetan frutuen mesedeaz-ba-

liatu nairik, azken baten gaurko egoeran gelditzeko. ez lur ta ez mendi.

Eleizeak 'be edo obeto esanda, Parrokiak, ba eukazan Ondarroa'n bere mendi eta solo batzuk. Baiña «desamortisasiñoiko» denporetan saldu egin eutsezan.

Ala Aizkibel mendia, Berriatua'ko lurretan. 19 VI-1867'n saidua.

Solo bat eta beste bost mendi, 7-VI-1867'n salduak.

Beste solo bi. 7 V[1867'n, salduak.

Latrozulueta mendia. 19-VI-1867n, saldua.

Bekobaltza mendia, ariztia, Berriatua'ko lurretan, 7-VI-1867'n saldua.

Santa Kutz etxea.

Antigua'ko eleizaren alboko etxea, 7-VI 1867'n, saldua.

Beste lurralde bat, erdi larre ta erdi langarri 19-2-1870'n saldua.

Orrela. «desamortizasiñoi»ko legeen bidez eleizarenak, eta erriak gudaetako zor edo lorrez, eskuz aldatu bear izan zituen euren jaubetasuneko mendi eta lurraldeak.



GURE INGURUAN ERABILTEN DIRAN IZEN BATZUK

BEDARRAK

Aingeru bedarra	Epai bedarra	Malma
Aitz klabeiña	Eriñotz zurixe	Migurixe
Aitz usaiña	Gallikixu	Milurixe
Ardi bedarra	Garduera	Muiti
Astolarra	Gardulatza	Pagotxa
Asuna	la (ixe)	Trumoi ira
Azeri bustana	Irrarra	Untsa
Berbena	lra, (iri)	Ustane
Berroia	Irukotxa	Zain bedarra
Bostkotxa	Irusta	Zoape
Buru latzena	Lapatxiki	Zogiñe.
Elbítxe	Larruntza	

FRUTU BATZUK

Abarra	Garia
Arantza	Giñarra
Arta txiki	Gisatza
Artoa	Gooztixe
Aspitza	Gurpixe
Elorrixte	Intagarri
Elorri baltza	Larra
Elorri zuri	Olo
Endalarra	Ota,
Eriñotza	Urrutxa
Garagarra	Zuma.

BASERRI INGURUKO ZUGATZ BATZUK

Altza	Leizarra
Arkazia	Madaria
Aritza	Makala
Artia	Melókotoia
Astigarra	Pagua
Briskua	Sagarra
Ezkie	Saratsa
Gaztaiña	Txapiña
Ikuia	Urkixa
Intxaurra	Zumarra
Keriza	



Baserri Etxeak

banan-banan...

*Mendi ganetik ikusten dira
zugazti, landa, zelayak,
basetxe zuri, baratza eder,
errekak eta ibayak.
Mendijan dagoz eguzki argi
ta etxe osasungarriak,
birijak garbi erabilteko
iñun baño be obijak.*

Enbeita tar Kepa.

OAR NAUSIAK

Baserri bakoitzaren ikuspegiak emotean, besteen artean. eta billatzen diranetan jaiotza, illobi (sepultura) eta amarrenen jakingarri batzuk emoten doguz.

Euretaiz gain-gaiñeko oar oneik kontuan euki bear dira:

JAIOTZAK

Jakiña da Parrokietan bataiotako zerrendak eroatea, au da, bataiatuten ziranen izenak artu eta agertzea, Eleiza Katolikuaren Batzar Nagusiak, Trenton artutako erabagien ondorenez datorrela.

Orrela XVI garren gizaldiaren erdirarte ez da agertzen bataiotako libururik parrokietan. Ondarroa'n 1550 urtean asten dira. Orrek ez dau esan nai urte ori baiño lenago abizenik (apellidurik) ez egoanik.

Ori dala ta baserri bakoitzaren zeaztasun bat egitean, ango deitura edo abizena alako urte batetik ezagutzen dala esaten dogunean, ez da esan nai urte a arte ez dala deitura ori egon.

Esate baterako Alipasolo abizena 1554 urtean lenengoz agertzen dala esaten dogunean. edo ta Alliri 1552 urtean, edo Allukiz 1554'n, edo Arriaga 1556'en, ez dogu esan nai urte orretan asiera emoten jakoela abizen orrei eta aurretik ez egozala. Bear ba da, eta egiz alaxe da, abizen asko eleizetako liburuak zabaldu ziran baiño lenagotik ezagunak ziran, itxasoetan, edo merkataritzan, edo euren ekintzetan, eskribaduen pape-retan eta abar.

Esan nai izaten doguna au da: Jaiotzako urtearen *ziurtasuna* urte orreitan billatzen dala.

Parrokiko liburuak, jaiotza ta bataioei buruz, lenengotan zeaztasun gitxi emoten dabe. Jaiotakoaren gurasoen izen-abizenak eta umeari ipinitako izena ta kitto.

Gero, denporak aurreratuz, zabalagoak datoz, bataituaren gurasoen gaiñetik, aitita-amumenak be emonaz.

Geroago guraso oneik nungoak ziran, zein erritako eta abar. Au da, jaiotzak inguratuaz, zeaztasunak be geitzen.

ILLOBIAK

Beste zeaztasun bat illobien (sepulturen) zerrendatik artzen dogu. Lekukotasuna agertu gura dogu orretara.

Ondarroa'ko parrokia XVI garren gizaldian egiña da. Aurrerago Antigua izan zan erriko parroki.

Ezaguna da Euskalerrian, kristautasuna sartu arte, kobaetan egiten zirala illen lur emoteak. Gero etxeetan, bai eta tellatu azpietan be, azken au eleizetako obiratzeak egiten asita gero be. batez be oraindik bataiatu barik ilten ziran aurrekin.

Eleizen barruetan, parrokiien barruetan, orduan bizi ziranentzat eta ondorengoentzat lur zati bat emoten eutsen etxe bakoitzari. Eta «sepultura» orretan errian egozan edo parrokiaren menpeko ziran etxe guztiei etxearen jarraipena lakoa emoten eutsen: etxeko illobia.

Origaitik «etxeko sepultura» edo «gura sepultura» deitzen eutsen eleizako toki orreri eta bertan batu etxekoak «okasiñoia» gertaten zanean, edo ta eleizkizun guztietan, batez be testigutzako an egoten zan argizaiola edo ta kandelaria biztuten zan elizkizunetan.

Ondarroa'ko parrokian 1751 urtean egin zan illobi (sepultura) banaketa. «A los vecinos, moradores y habitantes en ella». esaten da banaketa orren asieran.

Orrela 179 illobi banatu ziran parroki barruan.

89 illobi Ebangelioa irakurten zan alderdian; 90 Epistola alderdian.

1751 urte orretan egozan etxe guztientzako aiña. dirudienez. kopuru orretan bederatzi geratu ziralako iñori eskiñi barik, au da, urrengo baterako.

Illobi orreitako batzuk etxeen izenean emon ziran, beste batzuk abizenen loturaz.

Baserrien izenez emondakoak, baserri bakoitzaren zeaztasunez ipinten doguz, etxe orreïn lakukotasuna eta parrokiagazko lotura agertzen dabelako. Edozetara be ezaupiderako nortasun bat.

Gaur ezagutzen dogun Antigua gaiñeko kanposantua 1811 urterako egin zan eta urte orretako Azilla'n an lur emoten asi.

AMARRENAK

Amarren eta asikiñen kontuan, zerrendarik zabalena 1828 urtean aurkituten dogu.

Ezpairik ez dago, orduko agintarien ikuspegiz, etxe baten neurria eta duiñtasuna etxearen emaitzak emoten agertzen dirala. Etxe bakoitzaren indar eta anditasuna eta lurren aberastasuna, orrelako «kontribusiñoia» emotean edo ezartean. Batzutan kontzientziaren ardurapean erabagiten zan kontribusiñoia, bestetan makurpenez goitik ezarria, edozetara be etxearen neurri bat agertzen dauana. Or ikusten da etxe bakoitza bere lurreko frutueta noraiño eltzen zan eta azken baten zelako lurrak eta zenbat eukazanaren ikuspegi bat erakusten dauana.

Origaitik agertzen dogu etxe batek zelako lotuera eukan amarren eta asikin saillean, ortik ikusteko baserri-etxe bakoitzaren egoera.



Antiguako Ama.
Ondarroa inguruko itxaso eta mendietako zaindari.

AKILLA



Ondarroa uri buruaren gain gaiñean.

Erri legez: Berriatua.

Eleiz erakundez: Ondarroa.

Auzoz, Santa Kutz balleran sartzen da, edo ta Gorozika auzoan.

Baserri txikia. Lur batzuk neketsu eta pendizak.

12 Hektareako ingurua.

1813 urtean egiña da, orma gaiñean ikusten danez.

Errenteruak dira bertan bizi diranak. Jaubea Carmen Gaminde.

Bost lagun bizi dira gaur.

Eta iru bei, 3 txal, astoa, 15 ardi, oillo eta untziak (konejoak).

1828 urteko eleiz agirietan ikusten danez, bederatzi (9) kuarta gari barri emoten eutsazan eleizari, eta artotan lau otzara barri eta beste laurdeneko bi.



Bera dagon mendiaren izenetik datorkio izena. Akilla tontorraren azpian dagolako.

Bertarako biderik egokiena eta errezena, Txori Erreka auzoan asten dan bidetik. Ariñena, oiñez, Antzosolotik.


Gaur Santa-Kutz mendirako kurutzetakuak etxe burutik zear igaroten dira.

Umeen artean ba egoan onelako esaera:

Akilla'ko intxaurrak zarata asko, Antxubixakuak nausi.



ALDEKO



Izen jatorra: Aldekoa.

Bear ba da lengo gizaldian abade etxea izango zan. Orduko papere-tan, «casa cura!» lez agertzen da, eta 1828'ko eleiz sarreretan, ez da bere emokuntzarik agertzen.

Erri legez: Berriatua.

Eleiz erakundez: Ondarroa.

Auzoa: Asterrika.

Ez da etxe zarra: 1818 urtean egiña da.

Jose Mari Aranzeta'ren izenean dago.

Iru lagun bizi dira gaur bertan.



Korta eta *etxe* ondoan, 4 bei, 6 txal. astoa eta oilloak.

12 Hektareako ingurua dauka.

Sagarrondo batzuk. Piñadietan, 6 Hektarea,

Oraingo etxea bañño len besteren bat egongo zan. 1779 urtean. illen artean, Ana Eiguren 80 urtekoa agertzen da, eta etxe onetako andre lez.

Ondarroa'ko parrokian 1751 urtean egin zan eleiz barruan illobi edo sepulturen banaketa, eta Epistola aldetik 53 garren zenbakikoa, Aldekoa-Asterrika lez banatu eta ipini zan liburuetan.

ALDEKOA ERDIKUA BELTXORRENEKUA



Ba dauka baserri onek beste izen bat, eta bear ba da gaur ezagunagoa: Beltxorrenekua».

Erriz: Ondarroa.

Eleiz erakundez: Ondarroa.

Auzoa: Errenderi.

6 lagun bizi dira gaur bertan.

Jaubetasuna, bertan bizi diranena da.

Txikia lurrez: 2.5 hektarea.

6 bei, zazpi txal.

Baserri-lanak eta kalekoak.

1828'ko Eleiz-amarrenen zerrendan, garirik ez eban emoten. Artua bai, bost otzara arto zar eta otzara bat barri.

Alde aretan Inazio Arrizabalaga'ren izenean agertzen zan.



ALIPASOLO



Etxe zarra.

Asterrika auzoan.

Gaur utsik. Juan Belaustegi bere jaube.

1828 urtean, Eleizarentzako amarrenetan, 11 «kuarta» gari zar eta 5 barri emoten zitun. Eta artotan, zarretik lau otzara eta laurden bat eta barritik otzara bi eta laurdeneko beste bi.

Jakingarri ugari batzen dira berari buruz.

1693 urtean, bertako seme zan Antonio Ganbokorta il zan Lekeition, 13 urtedun, eskola ikastera ara bialduta egoala. «Aprendiendo a leer y escribir» Zazpi urte geroago, beste gertaera bardin bat. 1.700 urtean. lengoaren anai zan Domingo, au be, Lekeition. 13 urtedun zala il zan, eta liburu ber-bertan irakurten danez «Estando estudiando».

1729 urtean bertako jaun zan Juan Laka il zan 60 urtedun.

1747'n, il zan baita Joseph Egurrola, 36 urtedun. «dueño de las casas y caserías de Alipasolo e Itola»

1734 urtean. Udaleko Libro VI de Decretos dalakoan, au irakurten da Dagonilla'ko 29'an egindako batzarreko agirietan: «...*asimismo dixe-*

ron los dichos señores que don Francisco de Alipasolo, residente en la ciudad de Guanajarito en los Reynos de Indias, natural de esta, a escripto a don Joseph de Laca, beneficiado de esta villa su sobrino, pidiéndole le abisse en respuesta, al estado que tiene la Iglesia Parroquial de esta villa y sus memorias, y capital y otras cosas que constan de la dicha carta, y en atenzion a que dicho don Francisco como hijo natural de esta dcha villa y ser ombre de caudal, querrá hazer alguna obra en la Iglesia fundación de memoria u otra cosa que combenga en ella, ordenaron que se le de quenta por menor del estado y necesidad de esta Parroquia y de las fundaciones que hay en ella que se le escriba a dicho don Francisco que en caso que guste y quisiera hazer alguna obra se le dará y señalará por suya una capilla en dcha. iglesia y que se le haga saber este Decreto a los señores del Cabildo Ecc.º de ella para que en su vista se miren si combienen en este acuerdo» (29-VIII-1734).

Egun berean jakin eragin zan erabagi au Pablo Mizkiri bikarioari eta beste abadeei, eta danak erantzun eben ados etozala.

1751 urtean baserri onetakoak auzi bat euki eben Anakabe baserrikoekaz, saroe bat zala bide. Azken baten lortu eben euren ingurutik «sel de Anakabe» deitzen zan a kentzea eta eurena lez lurralde a sartzea.

Auzi ori parroikiko abade zan Jose Laka jaunak eroan eban, Alipasolo eta Itola'ko jaube zan Jose Egurrola bere illobaren izenean.

1751'n parrokian egin ziran illobien banaketan, etxe oneri Ebangelio aldeko 56 garrena izentatu eutsen.

1554 garren urtean abizen onetako jaiotza eta bataioa agertzen da Bataiotako Parrokiko liburuan.



ALLENDA



Gaur ALLENDA.

Toki batzuetan BARRENENGOA izenez agertzen dira.

Erri legez eta eleiz erakundez: Ondarroa.

Auzoa: Gorozika.

1828 urtean, eleizari, Allenda biak, ALLENDEZABAL lez ordaindu-
ten eutsen.

Pedro Ireta'ren izenez agertzen ziran.

7 «kuarta» gari eta 6 «kuarta»7 gari zar emoten eben. Eta artotan. iru
otzara, barritik.

«Bekua».

Gaur utsik.

Asun Artetxe'ren jaubetasuneko lez agertzen da.

«Goikua».

Domingo Elu eta Aguztin Barrenetxea'ren izenean dago etxea.

Inguruak: 6 hektarea.

3 lagun bizi dira etxe-lan eta arduretan.

Korta txikia: 3 bei, txal bi, astoa, ardiak eta oilloak.

1939'n jausi zan etxea ta barriztu.



ALLIRI BARRI



Ondarroatik Berriatua rako gaurko bide nausiaren ertzean.
Erri eta eleiz erakundez: Ondarroa.
Auzoz, Errenderi.
Baserri txikia.
Lengo denporetan taberna be egoten zan bertan.
Gaur lagun bi bizi dira.
Jaubea: Anastasia Aranguren.
1828 urtean Francisco Urresti'ren izenean egoan.
Eleizari amarrenak emotetik libre egoan. «Casa escusada» lez ager-
tzen da amarrenen zerrendetako orrietan.
Sagardaua egiteko tolarea euki eban.



*Alliri barri,
gure gizaldiaren asieran
benta-etxe lakoa zan.
Taberna eta sagardautegi,
arratsaldea igaroaz
illuntzetáko erretegi.
Errira ardaua ekarten eben
mandazaiñen atsedeen toki.*

ALLIRI ZAR



Errenderi'ko zubia igaro eta Gorozika'ko bidean.

Erri legez: Berriatua.

Eleiz erakundez: Ondarroa.

Auzoa: Errenderi.

Jaubetasuneko eskritura, Maria Morga'ren izenean dago.

Bertan bizi diranak errenteruak dira.

Zazpi lagun bizi dira bertan. Etxe ta kaleko lana darabille bertakoak.

4 hektarea daukaz inguruak.

Zazpi bei, zortzi txal, asto. txarri, oillo eta untziak (konejoak), zazpi ardi, aari bat...



Arken gerratean bonba bat sartu jakoen sukaldean. Baserria laga ta Ondarroa'n bizi ziran aste batzuetan.

1694'ko liburuetan Migel Ituarte eta Maria Zigarán agertzen dira baserri onetako erreteru lez.

Ondarroa'ko eleiz liburuak, bataioei buruz, 1550 urtean asten dira eta 1552 urtean agertzen da abizen orretako bat eta 1576 urtean beste bat. Eta eurekin galtzen da lenengo abizen lez deitura ori.

Sagardaua egiteko tolarea euki eban.



ALLUKIZ



Batzutan Aulikiz agertzen da.

Berriatua lurrez.

Ondarroa eleiz erakundez.

Auzoa: Asterrika.

Inguru aundia: 27 hektarea. (17 baso ta piñadietan, 10 landa ta solotan).

Pedro Gil eta Maria Teresa Solano dira jaubeak. Beraz bertan bizi diranak errenteruak.

Lau lagun bizi dira gaur bertan.

Kortan 8 bei eta 9 txal, Eta oilloak.

XV garren gizaldian ba dagoz etxe onen aztarrenak.

1554 urtean agertzen da abizen onegaz bataiatutako lenengoa eta XVI garren gizaldian amaika abizen bereko bataiatu ziran.

1694 urtean Domingo Zelaia eta Katalina Aulikiz agertzen dira etxe ta inguruko jaube lez.

1728', Juan Urkiza'ren izenez agertzen da.

Etxe onetakuak beti euki eben abelgintzarako ardura.

1906 urtean, Madrid'en bigarren saria irabazi eben «Moxo»gaz.

1906 eta 1907 urtean, Bizkai'ko Aldundiaren sariak irabazi zituen eta 1907 urtean Gipuzkoa'ko Aldundiaren sari bat jaso eben.



1829 urtean Jose Kalzakorta za Aulikiz'ko jaun.


Asarreak euki zitun Berriatua'ko parrokiagaz. San Gergorio eguna ofrenda ta guztiko jai lez artuta egoan an. Aulikiz eta beste etxe batzuk ukatu egin ziran orretara. Bederatzi egunetan ipinita egon zan eleizatetan eleizatik kanpora atarateko (exkomuniñoiko) zemaia.



ANAKABE GOIKOA



Baseri zarra.
Ziarrotza'ko kolegiatagaz zer ikusi euki eban.
Emen illak ara eroaten zituen obiratzea. Eta bertakoak, eleiz ardurak an bete bear.
Erri legez. Berriatua.
Eleiz erakundez, azken denporetan, Ondarroa.
Etxe jaubeak dira bertan bizi diranak. Senar-emazteak etxean lan egiten-dabe. Seme-alabak kalean.
Lau bizi dira gaur bertan.
Piñadi ugari. Sagarrak be bai.
13 bei, 15 txal, 40 untxi eta abar.
Amarrenak Ziarrotzari eskintzen eutsezan. Saroe bat zala ta eztabaida luzean ibili ziran erriaren kaltez. Alaz eta 1752 urtean, Ibarretxe lekeitiar baso-neurtzaille gaituak zer esangotan laga eban, eta 1573 urtean, eun eta berrogei urte aurretik «sel de Anakabe» izenez etorran auzia, bertan bera lagatera makurtu ziran.
1592 urtean billatzen da bataiotako liburuetan Anakabe abizen au.
Sagardaua egiteko toleara egon zan bertan.



Azeri trampa

AIIDIKETXE




Erri legez eta eleiz erakundez, Ondarroa.
Errenderi auzoan.
Laurendak urte jaso zala.
Inguru ona, baiña ez andia: 5 hektarea.
Etxe itxuratsua, bere ormetan denpora zarretako egiturak igarten dirala.
Bertan bizi diranak dauke etxearen jaubetasuna.
Erdi-baserri, erdi-kale, lanerako.
Gerra denporan emengoak lbarguen bekora joan ziran lenengotan.
Gero lspaster'era aldatu.
1828 urtean Jose Urkaregi'ren izenean egoan etxe au.
Sagardau ona egiten zan bertan.
Sagardau egiteko tolarea euki eben.



ANTIGUA



Ondarroa uri zarraren gaiñean.
Antigua'ko Ama, erriko zaindari danaren eleiz-egalean.
Izen barbera darua.
Goimendirako sarrera.
Lagun bi bakarrik bizi dira gaur bertan. Maria Osoro, etxekoandre alarguna eta alaba.
Piñadi batzuk daukaz.
Eleizako ardura euken beti. Origaitik «padarra» deitzen eutsen aurretikoei.
Azur konpontzaille ona izan zan bertako seme «Txomin Antigua», erriko zaindari edo aguazilla izan zana.
Inguru au, antxiñako denporetan, ormaz inguratua egon zala esaten da Ibarra Berge'ren «Torres de Vizcaya» liburuan.



ANTXIKUA



Baserri txiki. baiña jatorra.

Erri eta eleiz erakundez, Ondarroa.

Errenderi auzo barruan.

Inguru txikia dauka: 1,5 hektarea.

Maria Longarte etxe jaube alarguna eta alaba bizi dira.

Ortuariak euren ogi-bide.

18281ko eleiz zerrendetan, Francisco Agirre agertzen da bertako iaube lez.

Lau «kuarta» eta «kuartilla» bat emoten zitun gari zarretik, eta «kuartilla» bi gari barritik. Arto zarretik bost otzara eta barritik beste bat emoten zitun.

Orreik ziran etxearen amarrenak.

Azken gerratean, auzo onetako beste baserrien antzera, etxea laga bearra euki eben bertakoak eta Gizaburu'n billatu eben aterpea.



Lengo denporetan erriko arrantzale batzuek inguru onetan gorde-
ten zituen txalopak. Ortarako kai txiki lako bat egoan eta a izaten zan
txalopetako sartu- urtenean erabilten ebena.

Sagardaua egiten zan bertan.



ANTZONE



Gorozika auzoan.

Erri eta eleiz erakundez, Ondarroa.

Zazpireun urte etxeak? Leikena.

Gaur bitan banatuta dago.

Bekua: Eugenio Urriolabeitia'ren izenean dago.

Zortzi lagun bizi dira bertan. Ez danak baserri lanetan. Iru beintzat kalera joaten dira.

Bost bei, bost txal, ollo. untzi eta abar.

Zortzi hektarea.

Azken gerratean Ondarroan gorde bear izan zituen euren abereak.

1828 urtean Manuel Bikandi zan etxeko burua.

Eleizarentzako amarrenetan, zazpi «kuarta» emoten zitun gari zarreran, bost «kuarta» gari barritan eta beste kuartilla bi geiago. Eta artotan zortzi otzara arto zar.

Goikua: Juan Olarrega da jaubea.

Bost lagun bizi dira. Bik kalean lan egiten dabe.

Zortzi bei. zazpi txal. txarri. oillo eta abar.

Amaika hektarea.

Eleiz-amarrenak Migel Etxearen izenean emoten zitun. Garitan amabi «kuarta» zar eta lau «kuarta» barri. Artotan zazpi otzara zar eta beste otzara bat eta laurdeneko bi barri.

1751 urtean, etxe onetakoei, eleiz barruko illobiak banatutean. Ebangelio aldeko 36 garrena izentatu eutsen. Orduko paperetan Ansoe-nea lez agertzen da.

1794 frantzetarrak sartu ziran Ondarroan. Mutriku aldetik, Santa Kutz menditik zear egin sarrera eta lenengotan Gorozika alderuntz egin eben.

Bidean Baltasar Etxea. Antzone'ko jauna billatu eben eta il.

Baltasar au itziar'en jaioa zan eta Teresa Ibero'gaz ezkontuta egoan.

Itxuraz zauri ikaragarriak egin eutsezan gudari areik eta Dagonilla'-ren (Abustua'ren) 28'n il zan.

Ez ziran ausartu parrokira ekarten, frantzetar orreïn bildurrez, eta Gorozika'ko San Juan'en ermitan emon eutsen lurra.

Parrokiko «Libro VI de Finados» dalakoan onela esaten da:

«Echea Baltasar. Marido de Teresa de Ibero... Fue enterrado el cadaver del citado Baltasar en la hermita de san Juan Bautista de Gorozica a causa de no poder ser conducido a la parroquia por miedo de los franceses, quienes le dieron tales heridas e hixieron tales cosas con el expresado Baltasar que murió sin recibir sacramento alguno el día ueinte y ocho de Agosto de este corriente año. Dejó por hijo legítimo a Miguel.»

Sagarclaua egiteko tolarea egon zan.



ARRAUETA



Ori da baserri onen izan jatorra.
Ez jakin nundik atara dautsen oraingo «Atxukarro».
Zaldupe'tik Errenderira'ko bidean, izen bereko errekarre baten
dago, Artibai ibaiaren egalean.
2,5 hektarea da bere ingurua.
Simeon Elu da jaubea.
Bertakoak kaleko erabilketetan ibiltzen dira.
Bertan iru bei, iru txal, mando, auntz eta oilloak.
Lurrez, Berriatua.
Eleiz-erakundez, Ondarroa.
Auzoz, Errenderi'n sartu leike.

ARRIAGA



Ondarrutarrentzat, «Arrixa».

Berriatua lurrez.

Ondarroa eleiz erakundez.

Asterrika auzoz.


Berriatua eta Ondarroa arteko muga etxeko ormetatik igaroten dan lez. asarre eta eztabaida sorleku edo inguru izan' zan lengo denporetan erri bi onein artean.

I lhektareako ingurua dauka.

1556 urtean agertzen da lenengoz abizen au gure parrokiko libu-ruetan, bataiatuen artean.

1828 urtean Bernardo Aranbarri'ren izenean egoan etxea. 11 «kuarta» gari zar emoten eutsazan amarren lez eleizari eta beste 6 «kuarta» gari barri. Artotan barriz 6 otzara eta laurdeneko bi zarretik, eta beste otzara bi barritan.

Sagardaua egiteko tolarea euki eban.



ARTETA



Erriz eta elizaz Ondarroa.

Auzoz, Goimendi (Asterrika).

Irureun urte baiño geiago daukaz etxeak.

10 hektarea, piñadiekín.

Angel Arkotxa da etxe jaubea.

Sei lagun bizi dira bertan.

Abere artean 22 bei, 23 txal eta gaiñekoak.

Azken garratean lanerako tresnak erre jakoezan. Bakarrak geratu.

Orrelakoen artean, lur zapaltzaille batek 200 urtetik gora daukaz.

Txakolin toki izan zan len.

Gogoratu bearke da, amarren eta asikiñen denporetan, iru baserri zizala bakarrik Ondarroa'ko parrokiari txakoliña eskintzen eutsenak. Arteta onek 36 azumbre eskintzen eutsazan.

Garai aretan Lorenzo Badiola zan etxe jauno.

Erriko liburuetan agertzen da. 1710 urtean, (kaietako gaztañadiagaz solo bat atara ebala, eta baimena emon jakon solo a mugatu eta langaz sarratzeko. Asterrika'ko lñigo zan Arteta'ren jaube eta errederiarra zan.

1691 urtean billatzen da, Juan Aurre eta Angela Agirre. Debatziar'en jaiok zirala baserri onetako erreteru eta bertan il ziran.

1751 urteko illobi banaketan, Epistola aldeko 21 garren illobia izentatu eutsen emengoei eurentzat.

1603 urtean agertzen da, lenengoz, abizen au, parrokoiko liburuak asi ziranetik kontuan eukita.



ASTERRIKAKUA



Erri legez: Berriatua.

Eleiz erakundez: Ondarroa.

Auzoz, izenak berak agertzen dau nun dagon.

Luis, M.' Rosario eta Jose M.' Goenaga'ren izenetan dago etxea.
Iru lagun bizi dira bertan.

Sei bei. 8 txal eta auntza daukez.

12 bektarea. Euretako bi piñadietan.

1692 urtean Dionisio Arratsate eta Antonia Retolaza agertzen dira bertako jaube lez.

1828 urtean Jose Elordi zan etxeko jaun.

Eleizarako eskintzetan, amarren lez, 11 «kuarta» gari zar eta beste «kuartilla» bi eukazan.

Artotan 12 otzara.

Ondarroa'ko parroko bataio liburuak 1550 urtean asten dira. Urte orretan amar jaiotza agertzen dira eta ain zuzen lenen agertzen dana, Asterrika Pedro da.

Sagardua egiteko tolaarea euki eben.



ATXONDO



Gorozika auzoan.

Izenak berak adierazoten dau nun egon leiken.

160 urte daukaz etxeak.

10 hektarea inguruak. Piñadiak hektarea bi.

Andres Bikandi'ren izenean dago.

5 bei, txal bat, auntza, oilloak, untziak.

1828'n Jose Lorenzo Gandiaga zan etxeko buru. 13 «kuarta» eta 3 «kuartilla» emoten eutsazan eleizari amarren *lez* garitan. Eta 5 otzara eta laurden bi artotan.

1794 urtean, frantzetarrak sartu ziranean, Antonio Alegria. Manuel Makibar'en lenengo ezkontzako senarra eta bigarren ezkontzaz Manuela Badiola'ren senarra zana il eben. Ez eben semerik euki.



Parrokiko ildakoen liburuak (VI garrenak) diñoenez, frantzetarrak Dagonilla'ren 28'an il eben eta bere gorpua egun batzuk geroago lurperatu eben parrokian. 57 urte eukazan il ebenean.

Etxe ostean, aitz artean, sasoi baten meatza atarateko zuloak dagoz. Iñoiz gorozikarrak leiza orreitan ospatu zituen euren auzoko batzarrak.

1936'ko gerratean baserria laga ta kalean bizi ziran bertako gudalekuak inguruetan geldituta egozalako.



BARAIKU (BEKO ETA GOIKUA)



Baraiku biak ezagutu genduzan.

Tontorramendi'ren azpian, Ondarroa erriaren gain-gaiñean.

Bekoa:

Egigurendarrak dira bere jaubeak.

Goikoa:

Arriolatarrena da bertako jaubetasuna.

Baserri zarrak biak.

1751'ko "parrokiko illobien banaketan. Ebangelio aldeko 17 garrena emon eutsen, Baranigo izenean.

Baranigo batzutan, bestetan Baraiku agertzen dira euron izen lez.

1828'ko amarrenen zerrendan, etxe biok banatuta agertzen dira.

Bata Jose Gandiaga'ren ardurapean egoan.

Onek 14 «kuarta» gari zar ordaintzen zitun eta 7 otzara arto.

Beste etxea Cosme Gandiaga'ren izenean egoan.

Onek 12 «kuarta» gari zar eta bi barrí, eta artoa be banatu egiten eban: 5 otzara zar eta barritik bi.

Au da, osotasun baten baserri biak bardin.

Ba dirudi etxeak abizena (apellidua) he emon 21,21a.

Orrela jaiotzetako liburuetan 1556 urtean billatzen dogu Baranigo bat eta 1578 urtean Baraiku bat.

Gero, abizen ori galdu zan. Gure denporetan etxe biak orma zar arrakalatu geratu diran lez.



*Egualdien mende
geratu dira ormak
Piñuen itzalpe
lengo basoak...*



BASTARRETXE (BEKO ETA GOIKO)



Gorozika'tik Gasturu'rako bidean.

Baserri zabala. Etxe bizitza bitan banatuta.

Bekoa:

15 hektarea.

Errenteruak bizi dira. Eusebio eta Carmen Bilbo dira jaubeak.

1828'n Eleizarentzat 11 «kuarta» gari eta bost otzara arto emoten zitun.

Orduko jaube lez Santiago Abaroa agertzen zan.


Goikoa:

13 hektarea.

Zazpi bei, 6 txal, txarri. oillo...

Jaube lez Eusebio Bilbao agertzen da. Errenteruak bizi dira.

1828'ko amarrene ordaintzetan, 8 «kuarta» gari zar, «kuarta» bi gari barri eta kuartilla bi gaiñera. Artotan zazpi otzara arto emoten zitun.



Onen jaubea be, garai aretan, Santiago Abaroa zan.

1695 urtean Domingo Joaristi eta Catalina Egurrola agertzen ziran Basterretxe etxe ta lu . ın jaube lez.

1664 urtearen asieran Basterretxe eta Gorozika tar Domingo kapitana eta Madalena bere emaztea il ziran. Eren-min (tercianak) batu zitu. Emaztea zortzi egun baiño len bereala il zan. geroago senarra. Azken egunetan írantziskotar bik eta jesuita batek lagundu eutsen.

Azken naia egin eben. Beste dirutzen artean, gaztañadi alperren artean, barriak sartzeko dirutza laga eutsen erriari. Bai beste 500 dukat be, erri mendietan aritzak sartzeko.

1751'ko illobi banaketan, Ebangelio aldeko 35 garren illobia emon eutsen «Basterretxea-Gorozika» izenean.

1554 agertzen da lenengoz apellidu au, baiña kontuan artu bear da li buruak 1550 urtean asten dirala eta ziúrretik lenago be erabiliko zan abizen au.

Sagardaua egiten zan etxean.

BEAZKOA



Erri berbaz: Bizko.

Gorozika auzoan.

Ondarroa erriz eta elizaz.

Markiña'ko Arriolatarrak dira bere jaube.

Gaur lagun bi bizi dira bertan.

12 hektarea.

1828'ko eleiz eskintzetan, amarrenetan, 9 «kuarta» gari eta 4 otzara emoten zitun.

Aldi aretan Andres Antxustegi zan bertako jaube.

Denpora berean Migel Antxustegi be bizi zan bertan, eta onek be amarrenak ordaintzen zitun. Onek 7 «kuarta,> gari eta 5 otzara arto eskintzen zitun.

1692 urtean Esteban Albinagorta eta Maria Gorozika-Beazkoa agertzen dira etxe eta inguruaren jaube lez.

1751 urtean, parroko illobiak banatzean, 43 garrena emon eutsen Ebangelio aldean.

Sagardaua etxean egiten eben.

BEKOETXE



Erri legez: Berriatua.

Eleiz erakundez: Ondarroa.

Auzoa: Asterrika.

Iñazio Antxustegi, bere jaube.

Zazpi lagun bizi dira.

Senar-emazteak etxean lan egiten dabe. Seme-alabak kalean.

9.6 hektarea daukaz.

Iru bei, txal bat. astoa, untxiak.


1828 urtean, Domingo Basterretxea'ren izenean egoan etxe au.

Eleizarentzako amarrenetan, iru «kuarta» gari eta otzara bat arto eskintzen zitun.

1(0)1 iorte. ui eleizako lihuruetan, Martin Uribe eta Isabel 7_igaran
agerVen ür, bertako errenteru lei

1751 urtean. parrokiko illol)iak banatteen. [pistola aldeko bedera-
t/igaiiena izentatu eutSan.

Ueitura onetako ahitena. 159() urtean billatzen cia Bataiotako libu-
ruan



BUENOS AIRES



Antiguaren alboan.

Goimendi'rako bidearen asieran.

Beste deitura: «Pepenekua».

Domingo Azpiri bere jaube.

Gaur utsik dago.

Etxe onetakuak sagardaua egin eta kalean euken saltzeko tokia,
«Guzurretxe» deitzen zan aterpean.



BURGAÑA



Asterrika auzoan.

Eleiz erakundez eta erri *legez*, Berriatua.

Bizitza bitan banatuta dago baserria.

Baten Celes San Martin'en izenean dagoenean, 6 lagun bizi dira.

Bestean, Jose Irusta'ren izenekoan, 5 lagun.

Batzuk baserri lanetan, besteak kalekoetan.

12,7 hektarea daukaz.

1767 urtean egiña dala uste dabe bertakoak.

Baiña 1751 urtean. Ondarroa'ko parrokian illobiak banatu ziranean, Epistola aldeko 34 garrena Burgañakoa izenean agertzen da.

Bataiotako liburuetan. 1583 urtean agertzen da abizen onetako lengoa.



BURGOA



Ondarroa'ren gain-gaiñean.

Alaz eta Berriatua erri legez.

Eleiz erakundez. Ondarroa'ko parrokiaren menpeko.

Auzoa: Santa Kutz.

Bere gaiñean dago izen orretako ermita ezaguna.

Etxe ederra. gaur bizitza bitan banatuta. nai ta danak familikoak izan.

Santa Kutz ermitako ardurea bertakoak dauke. ermitak iñoiz euki zitun serorak eta geroago ermitañoak alde egin ezker.

1554'n agertzen da lenengoz Burgoa abizena. Nikolas Burgoa, jaiotzetako liburutetan. baiña liburuen asiera 1550 tik datorrela gogoan euki bear da.

1751 urtean parrokian illobiak banatu ziranean, Burgoa'ri Ebangelio aldeko 76 garrena emon eutsen.

1828'ko amarrenen zerrendan. Francisco Iramategi agertzen da etxe jaube lez. eta berak 19 «kuarta» emoten zitun garitan eta artotan 9 otzara.

XV garren gizaldian Sixto IV'k Goitiniz'ko Fray Diego'ri bula bat emon eutsan Ondarroa eta Mutriku artean Canarias ugartetara bialdu bear ziran mixiolariak gertuteko. Batzuen ustez. etxe au ízan eikean antxiñako denporetan orrelako etxea.

Bertakoak ganadu onak eukiteko zaletasuna zaindu izan dabe eta ezagunak dira idi-probetan bai Burgo izenez edo ta beste izenekin.



*Batzutan goian, bestetan al bestean,
baiña txapeldun manta ugari bizkairrean.*

ERREMENTA RIKUA



Asterrika auzoan.

Erri legez, Berriatua.

Eleiz erakundez, Ondarroa.

Asterrika'ko baserrien artean, irugarrena da andiz.

Lagun bi bizi dira.

Petra Argoitia da jaubea. Semeak kanpoan lan egiten dabe.

XV garren gizaldiko paperetan ba dagoz etxe onen azterrenak.

1694 urtean (Libro V de Finados-Parroquia Ondarroa) Sebastian Etxebarria agertzen da bertako erreteru lez.

1751 urtean parrokiko illobiak banatu ziranean, Ebangelio aldeko 54 garrena izentatu eutsen



1828 urteko amarrenen zerrendan. Petra Amezti'ren izenean egoan amarrenak emotea. Eta eskintza au egiten eban: Gari zarretan, 6 «kuarta» eta «kuartilla» bi ta erdi. Gari barritan «kuarta» bat eta «kuartilla» bat eta erdi. Artotan otzara bat eta laurden.

Rementeria lez 1639 urtean agertzen da. Bataiotako liburutan. lengoa.



GAL TZUARAN



Lekeitio'ko bide nausiaren egalean.

Auzoz, Goimendi.

Eliza eta lurrez, Ondarroa.

1869 urtean egiña da etxea.

1969 barriztua.

Etxe bizitza birako erabilten da.

Jose Malaxetxebarria'ren ondorengoena da.

9.725 hek tara daukaz.

1754 urtean, Udaleko agirien artean au irakurten da: Parrokiako Kabildoak, Galtsuaran'eko lurretan, errentan artu eta etxe bat jaso ta soloak zabaltzeko eskabidea, ukatzea. (Libro II, 240 orrialdean).

Etxe azpian, ur iturri on eta oparoa dauka.

Gure azken gerratean kuartela egon zan bertan.



GOIKOETXE ZARRA



Asterrika auzoan.

Gaur bizi lagun barik. Tresnak gordeteko erabilten da.

1692 urtean Santiago eta Antonio Egiguren agertzen dira bertako jaube lez.

1724'n Adrian Amillategi. 70 urtekoaren eriotza agertzen da etxe eta inguruko jaube lez. (Libro V Difuntos).

1747'n. Juan Amillategi il zan, 65 urtedun, eta au be bertako jaube lez sartu zan.

1751'n parroikiko illobien banaketan. Epistola aldeko 70 garrena emon eutsen.

1774'n. gertaera bakan bat gertatu zan.

Agintariak jakin eben lparter'eko German'ek bederatzzi bei saldu zitura eskutuan Gipuzkoara. Aldi aretan galerazota egoan ori. Ondarroa'-ko alkateak erri zaindari bat bialdu eban bidera eta ain zuzen zaindari orrek arrapatu zitun beiekaz etozan lagun biak. Zortzi bei Egiguren base-rrian gordeta egozan eta bestea Goikoetxe baserri ontan.

1553 urtean asten dira, bataiotetako liburuan, lenengo Goikoetxea'-ren aztarrenak.

GOITIZ



Errenderi auzoan, bide nausiaren goiko aldean.

Eleizaz eta erri legez. Ondarroa.

Baserri jaso.

10 lagun bizi dira bertan.

Jose Urresti'ren jaubetasuneko da.

12 hektarea inguruak.

7 bei, 6 txal, oillo eta untziak.

1692 urtean San Juan Bastarretxegoitia eta Maria Matea Kataegi agertzen ziran bertako nausi.

1751'ko illobi banaketan, Ebangelio aldeko 33 garrena emon eutsen parrokian.

1828 urtean Juan Bta. Iturrino agertzen da bertako jaun lez.

Amerrenen zerrendan, 12 «kuarta» eta «kuartilla» bi eskintzen zitun gari zarretan. Gari barritan «kuarta» bat eta «kuartilla» bi. Artotan 8 o-tzara zar, eta bat eta iru laurden barri.

Sagardaua egiteko tolarea egon zan bertan.

Parrokiko jaiotzetako liburuak 1550 urtean asten dira, eta lenengo Goitiz abizena 1561 urtean billatzen da.



GOITINIZ



Ondarroatik, Zaldupe'tik zear. Errenderi'ko bidean.

Lurrez Berriatua.

Elizaz Ondarroa.

Baserri zarra. Oraintsu barriztua. 1979 urtean.

Etxe jaubea. Maria Angeles Etxaburu.

6 lagun bizi dira, nai ta bik kanpoan lan egin.

7 hektarea,

XV garren gizaldian, Sixto IV Aita Santuak Bula bat emon eutsan emengo Fray Diego'ri. Mutriku eta Ondarru bitartean Canarias'era mi-xiolari joateko fraileak gertuteko etxe bat sortzeko.

1579 urteko jaiotzen artean. ume baten ama lez Catalina de Ara-goia, agertzen da eta diño parroikiko Libro V de Finados dalakoak, Goiti-niz'en bizi zala andre ori «moradora de la casería de Goitiniz».

1699 urtean Jose Bustinzuria eta Antonia Elexpurua agertzen dira bertako errenteru lez.

1828'n Jose Antonio Atxurra zan etxeko jaube.

Eleizari eskintzen ziran amarrenen zerrendan, a agertzen da ardura-dun lez eta 8 «kuarta» gari eta beste «kuartilla» bi emoten zitun. Artotan, barriz, otzara bi eta beste laurenko bi arto zarretik, eta otzara bat eta laurden bi barritik.

Urte asko dirala, jesuitak bizi ei ziran bertan.

Azken gerratean Amoroto'ra aldatuziran bertakoak, gerra arriskua emen egon zan artean.

Parrokiko bataiotako liburuak 1550 urtean asten dira eta abizen au 1560 urtean agertzen da.



G CXIZKOA



Gorozika auzoan.

Ondarroa, nortasun guztietan.

Antxiñako etxea.

Zazpireun urte?

Gaur bertakua errenteruak dira. Zuriñe Mugartza da etxe jaube.

12 hektarea.

Lau lagun bizi dira bertan.

Lau bei, zazpi txal eta oilloak.

1751 urtean, parroko illobien banaketa egitean. Epistola aldeko 43 garrena izentatu eutsen «Goseascoa-Gorocica» izenagaz.

1828 ko amarrenen zerrendan. ez da izen ori agertzen, «Alfonso-kua» baiño. Antonio Leizaola agertzen zan etxe jaube.

Amalau «kuarta» gari emoten eutsazan eleizari eta beste bederatziz otzara arto zarretan eta iru otzara arto barritan.

Etxe onen jaubetasuneko inguruak izen oneik daukez:

Alojaro. basoa.

Allenda-baso, basoa.



Etxebarria, soloa.
Etxebarri-andiena, soloa.
Kalleja.
Kurutze-aldea. mendia.
Sologuen. sagastia.
Solo nausia, soloa.
Solotxu edo solo txikerra, belardia.
Ubillalde, zatitxo bat gaztañadi. bestea mendi.

IBAIBARRIA GA



Ba dauka beste izen bat: Saro-alde,
Erriz, Berriatua.
Eleizaz, Ondarroa.
Zaldupe'tik Errenderira'ko bidean.
1890 urte inguruan jaso da.
7 hektarea, eurretatik 5,6 piñadi.
Juan Bta. Ibaibariaga'ren illobena da.

Ibaibariaga.

Aurrean ikusten dan ibaia, Artibai da.

Ibai ori da inguru onetan Berriatua eta Ondarroa bitarteko muga.

Egunen baten inguru onetatik Ondarroatik Markiña alderako bidea joango da, Ondarroa eske dabillan inguratzeko bide nausia, eta orduan, Berriatua eta Ondarroa'k azken banaketan egindako ituna beteaz, bide ori izango da muga, bidetik ibai artekoa Ondarroarentzat geratzen dala.

Inguru onetan, oraindik gure denporetan, itxas ontziak egiteko asti egon zan. Gero gordeteko, ta orain, lartoki.



IBA R G UEN BEKOA



Ondarroa'tik Berriatua'rako bide nausieran egalean.
Arantzibia torrearen aurrez aurre.
Jabier Bustindui'ren jaubetasunako da.
Gaur etxe bizitza bi dagoz bertan.
Bideari begira egiña dala dirudi etxe onek.
Baserri bertan kalerako arrain-kaja eta abar egiten dira.
4 hektarea.
Gerratean emengoak Mendaro'ra joan ziran, aurre bien erdian ge-
ratzen zalako etxea.
Sagardaua egiteko tolara eguan.



/bargüen'en aurrean, inguru onetan ain entzutetsu izan zan Arantzibia etxea («Antxubitxa»), Bizkai zarreko torre luzea.

IBARGUEN GOIKUA



Ondarroa'tik Berritua'rako bide nausiaren inguruan, bidetik goratxoago.

Ibarguen zarra be deitzen dautse batzuk.

Etxe zarra da, nai ta orain barriztuta agertu.

7 hektarea.

6 lagun bizi dira bertan.

Bei bi, txal bi. astoa, aari bi, oillo, untzi eta abar;

Teresa Aranbarri da etxe jaube.

XV garren gizaldian ba dagoz etxe onen aztarrenak.

1695 urtean Tomas Irueta zan etxe jaube eta bere izenean ordaintzen eutsezan eleizari amarrenak.

16 «kuarta» gari emoten eutsazan eleizari.

1751 urteko illobi banaketan, Epistola aldeko 65 garrena agertzen da Ibarguen izenez.

Etxean arasa zar bat gordeten dabe eta 160 urte daukazala diño. Bai eta 200 urtetik gorako orduari bat.



IMITA BARRI



Ondarroa'tik Afriandieta'n gora. Arteta igaro ta aurrez aurre agertzen da Íkaita barri.

Paper zarretan lkaieta lez agertzen da deitura au.

12 hektarea.

Bertakoak abel gintzara egozan, Luis Guenaga etxeko jauna zori-tzarreko gertaera baten il arte.

Gaur «Arteta» baserrikoak erabilten dituez bertako kortak.

1960 urtean barriztatu eben.

Perratokia be ba dago bertan.

Irabaltza'tik bertaraiño «pista» egiña da.

Sagardaua egiten zan.



IKAITA ZARRA



Asterrika'rako bidean.

Goimendi auzoan.

Lur eta eleiz erakundez, Ondarroa.

Francisco Guenaga Iriondo da jaubea.


300 urte gitxienez daukaz etxeak.

16 hektarea.

1751'ko illobi banaketan, Ebangelio aldeko 64 garrena emor,
tsen.

1828 urtean be Francisco Guenaga zan bertako jaube.

Amarrenetan eleizari eskintzen eutsana au zan: Garitan. zarretik amar «kuarta» eta «kuartilla» bi. Artotan lau otzara zarretik eta beste otzara laurden bat. Eta arto barritik 6 otzara.



IKATZA



Goimendi auzoan, Asterika'rako bidean.

Erri legez, Berriatua.

Eleiz-erakundez, Ondarroa.

6 hektarea daukaz etxe eta inguru. Piñadietan hektarea bi.

Jose A. Eizagirre eta Natividad Urriolabeitia'ren izenean dago.

10 bei, 11 txal, 4 auntz, asto, oillo eta abar.

Etxean senar-emazteak eta amonak lan egiten dabe. Alaba jostuna da. Semea gudari. Beste bi kaleko lanetan.

1693 urteko eleiz liburuetan, Domingo Iturriaga agertzen da etxe onetako jaun lez.

1791'ko illobi banaketan, Epistola aldeko 25 garrena izentatu eutsen.

1828 urtean Domingo Guenaga zan etxe jaube.



Amaika «kuarta» eta «kuartilla» bi eskintzen zitun garitan. Zazpi o-
tzara artotan.

Azken gerran apurtu eta zulatuta geratu zan.

1978 urtean barriztua da.

Ormako ordularia da baserrian dauken tresnarik zarrena.






Ondarroa'tik Gorozika'rako burdi bide zarrean.
Iramategi bekoa be deitzen dautse.
Erri legez, Berriatua.
Eleizaz Ondarroa.
Auzoa: Gorozika.
8 hektarea.
Ildefonso Urruzuno da etxe jaube.
Bost lagun bizi dira bertan.

6 bei, 6•txal, astoa, auntz, untzi...

1828 urteko eleiz amarrenen zerrendan Lorenzo Urruzuno agertzen zan etxe jaube.

Sei «kuarta» gari zar eta beste sei «kuarta» barri emoten zitun eleizarentzat, eta lau otzara arto zar eta iru otzara arto barritan.





Edo ta Iramategi goikua, batzuentzat.

Gorozika auzoan, Iramategi barri eta Mokaro bitarteko beraldi baten.

18 hektarea.

8 bei, 8 txal, oillo patari ta untxiak.

Fidela Urruzuno dabertako jaube.

1692 urtean Pedro Larruskain eta Madalena Iramategi agertzen ziran jaube lez.

1701 urtean. Ondarroa, Berriatua, Iramategi eta Santa Kutz ermitaren jaubetasuneko lurraldeak mugatzea egin zan.

1705 urtean Francisco Amallobieta zan jaube.

1751'ko illobi banaketan, Epistola aldeko 27 garrena emon eutsen.


1764 urtean emengo jaunak Ondarroa'ko Udalari eskabide bat egin eutsan lurralde batzuk trukatzeko, solo geiago lortzeko.



1828'n, eleizarako amarrenen eskintzetan, amabi «kuarta» gari zar eta beste amabi «kuarta» gari barri emoten zitun. Eta artotan amar otzara eta beste iru otzara laurden.

Urte aretan Inazio Elustondo zan etxe jaube.

Parrokian, bataiotako liburuetan. 1553 urtean billatzen da Iramategi abizen au.



ITOLA



Asterrika auzoan.

Gaur utsik.

Abelgintzarako (ganadutzarako) erabilten dira etxe eta ingurua.

Jaubea: Juan Belaustegi.

XV garren gizaldian ba egoan etxe orren aztarrena.

Parrokian. jaiotzetako liburuari, 1621 urtean agertzen da lenena.



KAMIÑA GA



Gaur Ondarroa'ko kale ertzean.
Kamiñazpi auzoaren gain gainean.
Erre egin zan orain 110 urte, eta, harriztua izan zan.
7 hektarea.

1828 urtean Esteban Arantzamendi zan jaube.

Urte orretako amarrenen zerrendan, onela agertzen dira bere emonak: Garitan 4 «kuarta» eta «Kuartilla» bi zarretan eta zortzi «kuarta» eta «kuartilla» bat barritan.

Artotan 3 otzara zar eta 6 barri.



Baserri onen ingurua, Ondarroa'ren zabalune izan da azken urte-tan.

Etxe bizitzak, ikastolak, eleiza, kaleak... dana barrien barri egiña da inguru onetan, eta bertan millaka lagun bizi dira.

Bertan sortzen da erri barruko ibillera egiten daben kotxea. Bertan dago erriko osakidetza etxea. Bertan gero ta ugariago duaz saltokiak, kafetexeak eta abar.

a Kamiñaga» baserri onek bere izena emon dautso auzoari: Kamiñazpi. Lengo denporetan, oraindik gaurko biderik ez egoanean. Alliriti'k sartzen ziran burdiak gero Iturribarritik zear erri burura joateko artzen eben bideari be bere izena emon eutsan lez: Kamiñalde.

KITARRANEKUA



Beste izen batez be ezagutzen zan lengo denporetan: Gallatekoa.

Errenderi auzoan.

Erri eta eleiz erakundez, Ondarroa.

12 hektarea eukazan.

Gaur utsik.

Azken denporetan 10 lagun bizi ziran bertan, baserri eta kale lanak erabiliz.

1828 urtean Xabier Idiakez'en jaubetasuneko zan.

Eleiz laguntzarako, amarren lez, 6 «kuarta» gari eta «kuartilla» bat emoten zitun gari zarretan, eta 8 «kuarta» eta «kuartilla» bat gari barritan. Eta artotan, lau otzara eta iru otzara txiki barritan, eta bost otzara eta iru txiki, arto zarretan,

1751'ko eleiz-illobien banaketan, Ebangelio aldeko lenengoa emon eutsen.

Sagardaua egiten zan.



KONDE ETXEBARRI



G, mendi auzoan.

Atxaspi gaiñean.

Asterrika auzoko lurraldean.

Elizaz Ondarroa.

Erriz, Berriatua.

Jose Luis Arriaga da etxe jaube.

27 hektarea inguru, 4 hektarea piñadietan.

17 bei, 15 txal...

Azken gerratean erreta geratu zan eta-barriztu.

Eiztarien toki atsegiña da bere ingurua.

Sagardaua egiteko tolara egoan.

Asterrika



Fedea eta duintasuna.

LURGORRIA



Beste pleitur<. Anakabe bekua.

Ondarroa'tik Lekeitio'rako bidean.

Erriz, Berriatua.

Auzoa: Asterrika.

Inguru txikia.

Taberna, azken urte batzutan. Orain itxita.

Orain bizi diranak ondarez, erentziz dauke etxea.

Etxe au 1869 urtean egiña dala ormako arrian irakurten da.

Itxas gaiñean. Metal ura ingurutan.



MOKARO



Ondarroa'tik Gorozika'rako bide zarrean.
Bertan asten da Berrosasi, Armetxa eta ingurutarako bidea.
1914'n egiña da.
5 hektarea.
Begoña Barrenetxearen jaubetasuneko da.
Bei bi, txal bat. asto. txarri, oillo ta untziak.
Azken gerratean, inguruko aitz zuloetan eskutatzen ziran bertakoak.
Baserri izena, tokiaren izenetik datorkio.



MUNABE



Gorozika auzoan.

Mendi ostean.

Ondarroa, eleiz eta erri erakundez.

Baserri neketsua lanerako.

Origaitik gaur utsik dago.

1751 ko illobi banaketan Ebangelio aldeko 5 garrena emon eutsen.

1828'n Jose Elu zan bertako jaube.

Bederatzi «kuarta» eta «kuartilla» bi emoten zitun gari barritan. Eta bederatzi otzara arto barritan.

Gaur Jose Bikandi da jaube.


1757 urtean ba dago, bataiotako liburuan, abizen onen barri.





Asterrika auzoan.
Berriatua, erriz.
Ondarroa, eleiz erakundez.
Baserri txikia.
4 hektarea.
Lau lagun bizi dira bertan.
5 bei, 5 txal, asto ta oiloak.
1709 urtean egiña da.
Jabier Elu da gaur jaubea.







Asterrika auzoan.

Gaur utsik.

1751'ko illobien banaketan, Ebangelio aldeko 70 garrena emon eutsen.

1828 urtean Pedro Alegria zan jaube.

Eleizarentzat, amarrenetan, amar «kuarta» emoten zitun garitan eta zortzi otzara artotan.

Sagardaua egiteko tolara euken.

Baserri au dala ta eleizako liburuetan au irakurten da:

«La más lejana casería de la feligresía de la Iglesia Parroquial de la N. y L. Villa de Ondarroa es la llamada de Orueta la Vieha; dista de la Parroquia una legua corta y radica en el Barrio de Azterrica; en lo civil es de la Anteig. de San Pedro de Berriatua y en lo espiritual de la Parroquia de la N. y L. Villa de Ondarroa».

Jaiotzetako liburraan, Ondarroa'ko parrokian, 1562 urtean agertzen da abizen onetako lenena.



PA TROKUA



Errenderi auzoan.

Erri eta eleiz erakundez. Ondarroa.

Artíbai ibai ertzean.

5 hektarea.

Orain 8 urte barriztatu zan, 1977'n.

Gaur Aranbarri-Retolazatarrena da.

6 bei, 6 txal, asto ta abar.


Torre etxea izan zan ta goratasuna kendu eutsen.

Emen jaio zan 1644-'ko Azilla'ren 4'an, «Lope de Andonaegui eta Lope de la Renteria» guda gizona (Maestre de Campo). 1700 urtean il zan.

1751 urtean. Ramon Alegria zan jaube. Eta eleizari, amarren lez, 6 «kuarta» gari eskintzen eutsazan eta beste 6 otzara arto.

Sagardaua egiteko toleara dago.

XVI garren gizaldian, Patron Renteria lez agertzen dira jaiotza bi. Lenengoa 1565 urtean. Gero Patron deitura ori galduta ba dagoz Rentería soil-soillik daukenak.



SANTANA



Errenderi eta Berriatua bitartean.

Bide nausiaren be aldean.

Lurren Berriatua.

Eleiz erakundez, Ondarroa.

5 bektarea, etxe ta inguruak.

2 bei, 4 txal, ardi, aari, mando, untz, oillo ta usoak.

7 lagun bizi dira. Kale bizitzan batzuk, besteak baserri lanetan.

Ermita izan zan len.

Ermitari, lenengotan. etxe bizitzaren zati bat egin eutsen eta gizaldiaren asieran orain dagona.

Len ermita zan zatia, orain korta da.

1828 urtean Domingo Arrizabalaga zan jaube.

Amarren lez, zazpi «kuarta» gari ta «kuartilla» bi eskintzen eutsazan eleizari eta 5 otzara arte.

Gaurko jaubea Juan Arrizabalaga da.

1905 urtean, abelgorri edo ganadu leiaketa bat irabazi eban.



SAROE



Zaldupe'tik Errenderirako bidean.

Auzoa: Errenderi.

Eleiz erakundez: Ondarroa.

Erriz. Berriatua.

1723 urtean egiña da.

1740'n emengo etxe jaube Jose Inazio Bustinzuria za. Jaun orrek, bertako izan zan Jose Bustinzuria'ren lanen orde, baserri eta ibai bitartean egozan 28 lur-zati edo atalak eskatzen zitun. Udalak, lur orde, dirutan ordaindu eutsazan lan orreik.

1828 urtean Bizente Arrizabalaga zan etxe jaube.

Eleizarako amarrenetan, 10 «kuarta» eta «kuartilla» bi gari eskintzen zitun. Eta artotan 6 otzara barri.



Inguru onetako baserritarrak onelakoxe txanelak erabilten zituen Artibai ibaia alde batetik bestera igaroteko. Txanel au Alliri zarrekoena da.

SEROTETXE



Asterrika auzoan.

Eleiz erakundez, Ondarroa.

Erri legez, Berriatua.

Maria Argoitia da gaurko jaube.

6 lagun bizi dira. Senar-emazteak bertako lanetan. Seme'alabak kanpoan.

8 bei, 8 txal, asto bat, untzi eta oilloak.

15 hektarea, 40 sagarrondo. Piñadiak.

1751 ko illobi banaketan, Epistola aldeko 63 garrena izentatu eutsen.

1895 urtean barriztua da.

«Serotetxeko» gaur deitzen diranak bertara bizitzera etorri baiño len, «Etxe-zarra»n bizi ziran. Orain etxeko tresneri eta gordeleku da, gari joteko tresna, prentsa eta abar bertan daukezala. Lenago «Solo-zarreta»n bizi ziran. Au be utsik dago gaur.



SOL OZARRETA



Asterrika'n.

Gaur utsik.

Gaurko «Serotetxe»n dagozanak, baserri onetan jaio ziran.

Gaur «Serotetxe»ko auntz, asto eta abar gordeten dira bertan.

UBILLA



Gorozika auzoan.
Lurrez Berriatua.
Eleiz erakundez, Ondarroa.
10 hektarea inguruak.
4 lagun bizi dira etxean.
1978 urtean barriztua.

600 urte inguru euki leiz etxeak.
8 bei, 7 txal, asto, oillo eta abar.

Juan Fco. Bikandi da etxe jaubea.

1692 urtean Mateo Berain eta Madalena Imitola ziran betoko errenteruak.

1751 ko illobi banaketan, Epistola aldeko 33 garrena emon eutsen.

1828 urteko amarrenen zerrendan, Andres Bikandi'ren izenean, emaitz oneik emon zitun: 15 «kuartau gari eta kuartilla bat. Eta 10 otzara arto.



Azken gerratean etxea utsik laga bear izan eben, talde bien aurreak inguru onetan egon ziran artean.

100 urte baiño geiago daukaz etxeko orduariak. Lo gela batek 60 urte baiño geiago. Beko sua eukeneko tresnak gordeten ditue.

Sagardaua egiteko tolarea dago.

Parrokiko liburutetan, Ubilla lez lenengoz bataiatzen dana, 1558 urtean agertzen da.



URKIAGA BEKOA



Asterrika auzoan.

Kanpotarrak dira jaubeak.

Noiz-beinka agertzen dira.

Len Garramiolatarrak bizi ziran bertan.

Jaubea mallabitarra zan.

1692 urtean Bernardo Urkiaga eta Ana Alipasolo ziran bertako jaubeak.

Urkiaga abizena, jaiotzetako liburuetan, 1561 urtean agertzen da lenngoiz.

URKIAGA GOIKOA.



Erri deituraz: Urkixa goikua.
Asterrika'n.
Lurrez Berriatua.
Eleiz erakundez: Ondarroa.
8 lagun bizi dira gaur. Zarrak baserrian lan egiten dabe, gazteak ka-
lean.
8 bei ta 9 txal.
Jose Mari Arrate da jaubea.
27 hektarea. Piñadiak.
1751 ko illobi banaketan, Ebangelio aldeko 46 garrena eskiñi eu-
tsen.

1828'n *Jose Andres Arrasate* zan jaubea.

Amarrentzat. 15 «kuarta» eta 3 «kuartilla» gari zar emoten zitun, eta 3 «kuarta» eta «kuartilla» bi gari barritan. Eta 6 otzara arto.

Karlisten gerran, bonbaz zulatua izan zan etxe au. 1936'koan be tiroz joa izan zan.

Sagardaua egiteko tolarea dago.



ZALDU



Ondarroa erriari begira dagon baserri zarra.

Bere azpian erriko kiroldegiak: Zaldupe.

Isidro Mendizabal'en izenean agertzen da.

Uztuta dago. Alderdi bat jausita.

1691 urtean Pedro Urkiaga eta Maria Joseph Garramiola agertzen ziran bertako erreteru lez.

1828 urtean, Pedro Badiola'ren izenean egoan. Amar «kuarta» gari emoten eutsazan eleizari eta 5 otzara arto.

Bertako batzuk kalean lan egiten eben.

Abizen (apellidu) au, Parrokiko jaiotzetako liburuetan, 1558 urtean agertzen da.

ZELAIKOA



Asterrika auzoan.

Erriz, Berriatua.

Eleiz erakundez: Ondarroa.

Etxea, gaur. Inazio Elgoibar'en izenean dago, Sabin Malaxetxeba-
rriari aldetzeko.

Amaika lagun bizi dira.

4 bei, 4 txal, asto, oillo eta abar.

1695'n Domingo Ubee eta Juana Arriola agertzen dira bertako jau-
be.

1714'n il zan Domingo Ubee au, 100 urtetara elduta. Bere seme bat
1698'n il zan, 36 urtedun.

1724'n Juana Zubiaurre il zan bertan 30 urtedun. eta bertako etxe-
koandrea zan.

1751'n, illobi banaketan, Epistola aldeko 64 garrena emon eutsen.

1828 urtean, Jose Inazio Usobiagaren izenean egoan.

Eleizari eskintzen eutsazan frutuak oneik ziran: Garia: «Kuarta bi» eta akuartilla» bat zarra, 6 <kuarta» eta «kuartilla» bi barri, Eta artotan, otzara bi ta laurdeneko bat.

Sagardau asko egiten zan etxe ontan.



ZEZERMENDI



Asterrika'ko bidean.

Goimendi auzoz eta Asterrika'ko kofradian.

„Jaubea: Antonio Juaristi.

18 hektarea, etxe ta inguru.

Gaur utsik dago.

300 urte baiño geiago daukaz etxeak.


1691 urtean Domingo Txopite eta Maria Zezermendia agertzen ziran bertako jaube lez.

1751 urtean. illobien banaketan, Epistola aldeko 24 garrena eskiñi eutsen, parrokian.

1828'n, eleizarako amarrenen zerrendan, bertako jaube lez Pedro Jose Juaristi agertzen zan eta 15 «kuarta» gari eskintzen eutsazan eleizari eta 6 otzara arto.

Sagardaua egiteko toleara egoan.





AURKIBIDEA

	Orrialde
Irakurleei	5
Arrantzale ta baserritarrak	7
Auzoak	11
Gure Baserriak	25
Gure inguruko errekak. Katastroa	26
Neurkin batzuk	27
Garia ta artoa	31
Gaztaiña	41
Sagardaua ta txakoliña	45
Ondarroa eta mendiak	51
Gure inguruan erabilten diran izen batzuk	68
Baseri etxeak banan-banan	69
Oar nausiak	70
Akilla	73
Aldeko	75
Aldeko erkidua	77
Alipasolo	79
Allenda	81
Alliri barri	83
Alliri zar	85
Allukiz	87
Anakabe goikoa	89
Andiketxe	91
Antigua	93
Antxikua	95
Antzone	97
Arraueta	99
Arriaga	100
Arteta	102
Asterrrikakua	104
Atxondo	106

Baraikuak	108
Basterretxe	110
Beazkoa	112
Bekoetxe	113
Buenos Aires	115
Burgaña	117
Burgoa	119
Errementarikua	121
Galtzuaran	123
Goikoetxe zarra	125
Goitiz	126
Goitiniz	128
Goxizkoa	130
Ibaibariaga	132
Ibarguen bekoa	134
Ibarguen goikua	136
Ikaita barri	138
Ikaita zarra	140
Ikatz	142
Iramategi barri	144
Iramategi zarra	146
Itola	148
Kamiñaga	149
Kitarranekua (Gallatekoa)	151
Konde Etxebarri	153
Lurgorria (Anakabe bekua)	155
Mokaro	157
Munabe	159
Orueta barri	161
Orueta zarra	163
Patrokua	165
Santana	167
Sa roe	169

Orrialde

Serotetxe	171
Solozarreta	173
Ubilla	174
Urkiaga bekoa	176
Urkiaga goikoa	177
Zaldu	179
Zelaikoa	180
Zezermendi	181
Aurkibidea	187
Bertsoak	190

ONDARROA ETA BERE AUZOEI

1. Garai batean Ondarrun ziran
baserri giro ederrak,
Txorierrekan gaztañak eta
Arta aldian sagarrak.
Lameraraiño ia ba ziran
madari, keixa ta larrak,
orrek guztiak galdu zituan
erria asi bearrak.

2. Telleri eta Erreterian
ba zan sagardau bikaiña,
gorputzarentzat sagardaua da
sanoa eta apaiña,
Ondarroatik Erreterira
sagardauaren kanpaña
trago ederrak egiten ziran
etziren moskortzen baiña.

3. Len baserria eta kalea
ibiltzen ziran batera,
orain piñuak sartu ditue
eta sagarrak atera,
aldaketa au egin zalako
lengo oíturen kaltera,
Erreterira gaur ezin juan
sagardaua edatera.

4. Erreterira sekula ez da
izan sinismeni ez otza,
Antiguako Amarengana
begiratuaz goruntza,
Iraillaren zortzian ere
zelan dagon bide motza,
Erreteriak bisitau barik
ez du lagako Gardotza.

5. *Asterrikarrak euren sailletan
mendi ederrak dituzte,
ondarrutarrak amaika aldiz
egin dabe aratuste,
ango tomate eta piperrik
iñon dagonik ez uste,
zan Lorentzotan juango gara
inbitatzen ba gaituzte.*

6. *Santa Kruz dauka alde batean
eta Goimendi bestean,
Gorozika ta Asterrikarren
itzala oien atzean,
san Lorentzo ta san Juanengana
beti juateko pozean,
bi santu oiek dagozalako
Ondarruren biotzean.*

7. *San Juanetan Gorozikara
lore txorta bat artuta,
meza entzun da eguna pasa
zelaietan bazkalduta,
Oleanetik danak plazara
dantzaz eskutik elduta,
geientsuenak gero etxera
bidean'txorta galduta.*

8. *Kantauriaren oiatsuetan
dozu zeure oiñarria,
atzeritarren jolas lekua
askoren maitagarria,
esku emonda juaten ba dira
arrantza ta baserria
bere bidetik or biziko da
Ondarroako erria.*

Juan Azpillaga

